



## IZAR BAT GEHIAGO

Beste herritar bat iritsi da  
Realaren gizonen lehen  
taldera: Jon Guridi 20




ZURE SEME-ALABEN  
IRRIBARREA ZAINTZEN  
DUGU. IRRIBARREA EGITEA  
EZ DA EZER KOSTATZEN.

> PADI 2018 programarekin barne-gaude.

Jose Arfetea kalea, 5 (Arbustotze-ko andean) 20730 Azpeitia



INNOVA  
HORTZ KLINIKA

 943 025 955





QLED TV

*Zatoz gure erakusketa berria ikustera!*




Astelehenetik ostiralera:  
9:30 - 13:00 | 16:00 - 20:00  
Larunbata: 9:30 - 13:00

uztarria.eus



Eskerrik asko emaitzengatik!

BAZKIDE KOPURUA



Bazkide datuak hobetzen lagunduko?

Urtean  
**30euro**

Bazkideen abantailak:

- Uztarria proiektuaren parte izan
- Bestelako produktuak etxean jaso
- Zozketetan eta lehiaketetan parte hartzeko aukera



# uztarria

**Argitaratzailea.** Uztarria  
 Komunikazio Taldea. Azpeitia  
**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behea,  
 (Azpeitia, 20730)  
**Telefonoa eta faxa.** 943 15 03 58  
**Posta elektronikoa.**  
 uztarria@uztarria.eus  
**Posta kutxa.** 227, Azpeitia  
**Lege gordailua.** SS-860/2000  
**Zenbakia.** 203.a (2018ko martxoa)  
**Urtea.** XIX.a (1999ko azaroan sortua)  
**Maiztasuna.** Hilabetekaria  
**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta  
 Euskara Zerbitzuak  
**Publizitatea.** 685780412 /  
 uztarria@uztarria.eus  
**Bazkidetza.** 943 15 03 58  
**Tirada.** 2.500 ale hilero  
**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak  
**Azaleko argazkia.** I.Elustondo  
**Webgunea.**  
[www.uztarria.eus](http://www.uztarria.eus)

Uztarria herri aldizkariaren laguntzaileak



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Hezkuntza, Hizkuntza  
 Politika eta Kultura Sailak  
 (Hizkuntza Politikarako  
 Sailburuordetzak) diruz  
 lagundua

**Oharra.** Uztarriak ez du bere gain hartzen  
 aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

## 2018KO MARTXOA UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||||||||



### iritzia

**Inkesta.** Ohiturarik ba al duzu garizuman bijilia egiteko? **13**

### mamia

**Elkarrizketa.** Aloña Zubizarreta erizaina Gazan aritzen da lanean Munduko Medikuakekin **04**  
**Klik!** 'Mugetatik haratago' hezkuntza proiektua, martxan **16**

**Igarako errota.** Loiolan bada errota zahar bat: Igarako errota **26**

### jakiteko

**Atzera begira.** Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia 25. ediziora iritsi da **34**



Ba al dakizu aldundiaren arabera, Azpeitia-Azkoitia bidegorria oinezkoen gustukoenen artean dagoela? Uztarria

Izan uztarriaren bazkide 943 15 03 58

Herri aldizkariaz gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1** eta **biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

**1.060** bazkide **30** euro dira urtean. gara Uztarria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

# ALOÑA ZUBIZARRETA

erizaina

## “Aire Libreko kartzela bat bezalakoa da Gaza”

Erizaina da ogibidez, eta bi hilean behin Gazara joaten da hango umeei ebakuntzak egitera. Ohiko bizimodura itzultzea “gogorra” egiten zaiola dio. 📧📞 Julene Frantzesena

**D**uela hiru urte joan ziren Aloña Zubizarreta eta haren familia Jerusalemara bizitzera, senarraren lana tarteko. Erizaina da azpeitiarra, eta oraintsu egin du azken bidaia Gazara. Bi hilabetez behin joaten da hara umeei ebakuntzak egitera.

### Nolatan hasi zinen Gazara joaten?

Erizaina naiz, eta etortzerako pentsatuta nuen Gobernu Kanpoko Erakunderekin batekin-edo kontaktuan jarri behar nuela. Izan ere, zerbait ematerik banuela pentsatzen nuen. Lehenik, Bilboko Mundu Bat erakundearekin jarri nintzen harremanetan, eta haiek eman zizkidaten bertako GKEen kontaktuak. Belenen hasi nintzen lanean, Beit Sahourren. Belen de-

zente handia da, eta hango anbulatorio moduko ospitale txiki batean egiten dut lan. Astean bitan joaten naiz hara; batean larrialdietara eta bestean kirofanora. Erizaina naiz, baina kirofanoan egiten dut lana. Han lanean hasi eta gero, 2016aren hasiera aldean, Munduko Medikuek elkarteko koordinatzaileak deitu zidan. Gazan proiektu bat zutela eta erizain baten bila zebiltzala esan eta parte hartzera animatuko al nintzen galdetu zidan, eta halaxe hasi nintzen.

### Zer egiten duzue han?

Bi hilean behin astebetetz joaten gara hara. 18 urtez azpiko umeei eta nerabeei zuzendutako proiektua da. Horiei ortopedia eta traumatologia zerbitzuak eskaintzen dizkiegu. Gazako gobernuarekin adostutako proiektua da Munduko Medikuek, eta haiek auke-

### |||DATUAK|||||

|||Jaio.1975eko azaroaren 9a.  
|||Herria.Azpeitia. |||Bizitokia.  
Jerusalem. |||Lanbidea.  
Erizaina.

ratzen dituzte guk artatuko ditugun umeak beharraren arabera. Gazako lehen egunean hautatutako ume denak ikusten ditugu, 70-100 izaten dira. Gainerako egunean ebakuntzak egiten ditugu. Ume batzuek, ebakuntza behar izaten dute, eta besteek, tratamendua. Gazako ospitale publiko-arekin egiten dugu lan, eta azken aldirian hegoaldean dagoen ospitale batean aritu gara lanean. Gaza ez da oso handia, baina gu gauden gunea Egiptorekin mugan dago. Errefuxiatuen eremu izugarri bat dago bertan, eta haren erdian dago ospitalea.

### Zer nolakoa da hango egoera?

Joaterako pentsatzen nuen denak txiroak izango zirela, baldintza txarretan egongo zirela, baina denetarik dago. Errefuxiatuen eremuetako jendea askoz ere okerrago bizi da, horietako askok Nazio Batuetatik iristen zaien laguntza jasotzen dute UNRWA elkarteari esker. Blokeo egoeran bizi dira, asko sufritzen dute, ez baitaude egoera onenean. Gainera, orain energia murrizketak ere egin dizkiete, soldata bi hilabetero jasotzen dute medikuek adibidez, langabezia tasa oso handia da... Egoera ez da batere ona, baina konparaketa egiteko, esango nuke ez dela Afrika. Izan ere, ez dut ikusi amerikeshidratazioarekin edo elikatu gabe. Halako kasuak ez ditugu ikusten. Dena den, blokeo



Aloña Zubizarreta, ezkerretik hirugarrena, medikuntzako hainbat ikaslerekin ospitalean. ||| Aloña Zubizarreta

egoeran bizi dira, eta horrek sortzen dituen ondorio guztiak izugarriak dira.

### **Han ere izango dira medikuak eta erizainak... Blokeo horregatik joaten al zarete zuek lanera?**

Bai, bai. Unibertsitateak dituzte, hangoa ez da ikasketarik gabeko jendea. Eta medikuak badaude, erizainak ere bai... Pasatzen zaiena da blokeoagatik ezin dutela kanpora irten eta beraien formazioa moztuta dagoela. Ezin dute, adibidez, teknika berriak ikastera irten. Horretan hanka motz daude, kanpotik goazenon bidez edo Internetez izaten dute berrikuntzen berri. Baina beraiek gauza askotan mila buelta ematen dizkigute: larrialdietan, adibidez. Azken urteetan hiru gerra oso jarraian pairatu dituzte, eta larrialdietan oso trebeak dira. Ez dute izango zera edo bestea, baina ez dagoen tokitik ateratzen dute aurrera egiteko behar dutena. Halere, ikusten dut sendagai falta izugarria dutela.

Guk umeak operatzen ditugu, batzuetan ebakuntza oso potolak izaten dira, eta konturatzen gara operazio osteko minari aurre egiteko botikak falta dituztela. Berez prestatuta daude, baina baliabideak falta zaizkie. Israelek eta Egiptok kontrolatzen dute Palestinako sarrera, eta murrizketak nabarmenak dira. Politikan ez naiz sartuko, baina Gazan Hamasek agintzen du, eta Al Fatarekin arazoak dituzte; horrek ere areago-tzen du egoera.

### **Zuek nola hartu izan zaituztete hara joatean?**

Ondo baino hobeto. Beti eskuzabalik hartzen gaituzte, beraiek ahal duten dena egiten dute gu gustura egoteko: zerbait eskatzen badugu eta ez baldin badute, saiaturko dira nonbaitetik ekartzen... Laguntzeko prest egoten dira beti, eta ondo sentiarazten saiatzen dira. Gutxi dute, baina duten gutxi hori emateko daude.

### **Nolako taldea joaten zarete Munduko Medikuekin?**

Elkarteak Espainiatik ekartzen ditu medikuak; bi traumatologo eta anestesista bat. Eta ni Jerusalemetik joaten naiz. Denak boluntarioak dira. Askotan zailena medikuak topatzea izaten da; utzi izan ditugu bidaiak bertan behera mediku faltagatik. Normala da; izan ere, boluntarioak dira, oporrak hartzen dituzte etortzeko eta askotan ospitaleek zailtasunak jartzen dizkiete. Mediku lanak egiteaz gain, Gazako medikuei irakatsiko dien jendea nahi izaten dute. Ez da izaten Gazara joan, operatu eta listo. Hango medikuei hainbat gauza nola egin erakusten diegu, beti ospitaleko langileekin aritzen gara lanean. Hango medikuek ebakuntza egin bitartean formazioa jasotzen dute.

### **Gerrak utzitako ondorioetako bat al da umeek traumatologia arazoak izatea?**

Bai. 2016an, lehen aldiz joan gineanean, artatu gabeko ume asko ikusi genuen. Gerra izan zen 2014an, 2.500 hildako-edo izan

ziren, eta sasoi hartan ezin izan zuten artatu jaioberriak ziren eta oraindik oinez ibiltzen ez ziren umeak. Bere garaian behar zuten arretarik ez zuten jaso, eta gaur egun ikusten dira ondorioak. Garai hartan plakak atera eta igeltsuarekin konpon zitezkeen arazoak, baina gaur egun ja ez. Taldeko mediku bat baino gehiago harritu izan da halako kasuak ikusita. Gerrak ondorio zuzenak ez ezik, zeharkakoak ere eragin ditu.

### **Gerra hartatik lau urte pasatu dira. Ba al da Gazan gerraren arrastorik?**

Zonalde batetik bestera alde dago. Leku batzuetan hutsune handiak daude, ez baitute berriz eraiki. Gaza Cityn, adibidez, eman diote buelta. Dena den, erdia eraitzita eta erdia zutik dauden eraikinak ere ikus daitezke. Beraiek esaten dute ahal duenak eraiki duela zerbait, eta eraiki ez duenak ere ahal duena egin duela. Herriarrek esaten dute diru sarrerak asko murriztu zaizkiela azken urteetan.

Dena den, ez dute asko hitz egiten politikaz, baina zerbait galdetuz gero erantzuten dute. Orokorrean, pasatu dituztenak pasatuta, oso jende gogorra edo kementsua da hangoa. Ez dira penak kontatzen jardutekoak.

### Nola akordatzen zara lehen aldiz Gazara sartu zinen egun harekin?

Oso gogorra egin zitzaidan. Harresia ikusteak barrua mugitzen dit. Ez dut ulertzen gaur egun nola egon daitekeen horrelako harresi bat. Gazara joatea oraindik eta gogorragoa egiten da. Gu Israeletik sartzen gara, eta lehenengo kontrol bat pasatzen dugu. Gero, harresi handi horrekin egiten dugu topo, eta ondoren pasarela moduko batetik igarotzen gara. Hesiz inguratuta dago gunea, kartzela baten modukoa da. Hirigunean sartzean beti esan izan dut aire libreko kartzela bat bat bezalakoa dela Gaza. Askok eragiten du. Gazako irteera ere oso gogorra egiten zait. Zortzi-bederatzi aldiz izan naiz jada, jendea ezagutu egiten dut, eta haiek ezin dutela irten ikustea... Ni joan eta etorri egiten naiz, pasatzen ditut kontrolak, baina haiek ezin dute handik irten. Askatasun falta hori izugarria da, eta handik etortzean pena izaten dut, ez baitut ulertzen gaur egun horrelako egoerak nola egon daitezkeen.

**Gazan astebete pasatu eta Je-**

### rusalemera bueltatzean, erraz egiten al zara egunero-kora?

Kostatu egiten da pixka bat. Egia esan, gogorra egiten zait. Umeak ditut, eta handik itzultzean, askotan gogorazten diet zer pribilegiatu diren, non jaio diren eta zenbat gauza dituzten. Han urte osoan sandaliekin ibiltzen dira umeak, izan negu edo uda; argia egunean zortzi orduz baino ez dute, eta izan dezakete goizez, arratsalde edo gauzez. Horrelakok ikustean konturatzen zara guk zer daukagun; izan ere, argindarrik gabe ordu bete pasatu behar, eta... Erlatibizatzen ikasten da, eta gehiago baloratzen dituzu beste gauza batzuk. Handik itzultzean barrua ukituta izaten dut; ze gero egunerokoan sartzen gara, eta ahaztu egiten zaigu dena.

### Zer ikasi duzu Gazako esperientzietatik?

Batetik, lanean ikusi dut jendeak zer erraztasun duen baliabide gutxirekin aurrera egiteko. Gu oso eroso bizi gara, baina ikustekoa da jendeak gutxirekin zenbat egiten duen. Esperientzia oso aberasgarria izan da, beraiek ere ikaragarri ematen dute, eta horrek asko esaten du pertsonengatik. Pertsona bezala eta erizain bezala esperientzia oso aberasgarria izan da. Apirilean goaz berriz ere.

**Jerusalemera nola egokitu zarete?**



Aloña Zubizarreta ebakuntza batean. ||| Aloña Zubizarreta

Ohitu gara. Aldaketa handia izan zen hasieran. Gainera, Jerusalemek erlijio ukitu oso handia dauka, bi zatitan banatuta dago; batean musulmanak bizi dira eta bestean juduak. Nabarmen bi zati ditu hiriak, eta horrek ere harritu ninduen. Leku berean bizi dira, baina konfrontatuta. Guretzat harrigarria izan zen erlijioak eta fedea haien eguneroko bizimoduan zer garrantzi duen ikustea. Gainerakoan, egunerokoa ez da Azpeitiko bezalakoa, baina beno... Umeak es-

kolar joaten dira, igeriketara ere bai, gitarra ikasten du alabak... Eguneroko martxa horkoaren antzekoa da, baina ingurunea aldatzen da.

### Faltan sumatzen duzu Azpeitia?

Bai. Askok akordatzen gara Halere, teknologiaren aurrerapenekin une oro gaude familiarekin harremanetan. Gertutasun hori sentitzen dugu. Gainera, urtean bitan joaten gara Azpeitira. Egia esan, oso gustura joaten gara.\*

# BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza zaharberritzea nahi duzu?



Erositako etxebizitza eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua  
Gremioen koordinazioa  
Epeak betetzea  
Erakusketa handiak

Abercaino poligonos, 2  
Tel. 943 355 016  
Zarautz

Santiago azkoa, 12  
Tel. 943 343 443  
Zumaiola

San Juan, 16 edif. AXBU  
Tel. 943 852 110  
Azkoitia

Cespede Kalea, 18  
Tel. 943 348 241  
Zestoa

# Hesiak hez dezake

# O

hartu ez bazara ere, aurtengoan sokamuturrak 500. urteurrena bete du, irakurle. Osasun onean bete ere! Hainbat ekitaldirekin, logotipo lehiaketarekin, argazki-liburuarekin eta antzerkiarekin omendu dute urteurrena. Eta sansebatianetatik inauterietara bitarteko asteburu guztietan sokamuturra izan da.

Ez dakit, baina alderantzizko efektua sortzen dit niri zezenaren tamainak. "Jaunartzeko bizikletaren efektua", alegia. Garai batean –nirean behintzat–, bizikleta dotorea izaten zen opari izarra. Norbera hazten zihoan heinean, ordea, bizikleta gero eta txikiagoa bihurtzen zen, garajea edo ganbaran ahaztuta utzi arte. Horren alderantzizko efektua sortzen didate egun sokamuturrean ibilarazten dituzten zezenek; gero eta handiagoak direla iruditzen zait. Gaztetoxan hasi nintzen lagunartean sokamuturrean ibiltzen, eta orduko beldur faltak zezena txikitzen zuen ziurrenik. Orain, baina, beldurrak, sasoi faltak eta bestelakoek zezenaren tamaina handitzearekin zerikusia duten susmo irmoa dut.

Aurtengoan ere, sokamuturrak arratsalde osoan herria hartuta izan duenez, hesi atzean pipak janez bizpahiru ordu egin ditut, ez gehiago; pipa zorroa amaitu arte, zehatz esateko. Gaztetako sokamuturra eta gaur egungoaren arteko berdintasunei eta ezberdintasunei errepertuz pasarazi dut denbora.

Gaztea nintzenean, sokamuturra izaten zen eta orain ere bai. Sokamutilek sokamutil izaten jarraitzen dute. Beharbada, soka-neskarik aurkeztu ez delako izango da, baina hori ere ez da aldatu umeentzako zezen txikiak kasuan ez bada. Lehen, nik dakidala, urrutitik ez zen sokamuturzalerik etortzen herrira; orain, berriz, bai, eta maiz, gainera. Horietakoren bat edo beste Azpeitian kuadrilla izateko bidean dela ere esango nuke! Lehen, hesiaren bestaldean zirenek estu eta larri zebilen zezenzaleari edo ez zaleari tokia uzten zioten hesia saltatzeko. Eta gaur egun ere, gehienek jarrera lagunkoia izaten jarraitzen dute halako egoeren aurrean. Hala ere, bada urtero-urtero hesi zatia beraren-



||||| **olatz aguado** |||||

||| Nire uste apalean, zenbait gauza arautu egin behar dira eta jarrera egokien kontzientziazioa landu

tzat hartzen duenik, estu eta larri dagoenari gauzak errazten ez dizkionik.

## Urtemugak aukera

Nire uste apalean, zenbait gauza arautu egin behar dira eta jarrera egokien kontzientziazioa landu. Adibidez, hesia sokamuturrean dabilena eta ez dabilena babesteko denez, hura erabiltzeko beharra duenari oztoporik ez jartzeko azaltzen duten seinaleak jar daitezke hesien oholetan. Edo hesiaren babesean dagoen eta beste guztiak arriskuan jartzen dituenentzat zezena ez zirikatze dioen eta zezenari muturrera sprayrik ez botatzeko adierazten duen seinale bana ere jar daitezke. Edo sokamuturraren alde ez daudenekin errespetuzko jarrera izatea eskatzeko edo alderantzizko dioten seinaleak ere ipin daitezke.

Ospakizunak eta urteurrenak aukera paregabea izan daitezke jarrera desegokiak zuzentzeko edo hobetzeko, ez duzue uste? Ikusi ditudan ohar bakarrak trafikoaren ingurukoak eta 16 urtetik beherakoek sokamuturrean ibiltzea debekatua dutela ohartarazten dutenak izan dira; eta bietatik bakarra errespetatu da. Nork daki etorkizunean zer gertatuko den, baina bidean egiten denak zerikusia izango du gertatzen denarekin.\*



# Eremuz kanpo

**B**olo-bolo dabil, inguruan ez bada nire buruan behintzat, Azpeitiko sokamuturraren dokumentala ikastetxeetan ematearen edo ez ematearen arteko eztabaida. Sarean erazten diren eztabaidak eta foroak oso kuriosoak eta interesgarriak iruditu izan zaizkit betidanik. Parte-hartzeari behar-beharrezkoa ez denean muzin egin ohi diodan arren, krispeta poltsa bat alboan, orduak igaro nitzake erabiltzaile gehienetan anoni-moen iruzkinak irakurtzen.

Gaiaren inguruan zuzenean muturra sartu gabe, nahigabe unibertsitateko garaiak etorri izan zaizkit gogora, ez-fikziodun dokumentalen inguruan sortzen ziren eztabaidak, hain zuzen ere. Errealitateari enkoadre bat jartzea edo enkoadre bati errealitate deitzea ez da gauza bera.

Urteak igaro genitzake erantzun irmorik sekula izango ez duten gaien inguruan diskurtitzen, baina erantzun zuzenik ez badu, ez du izango sekula. Adibidez, euskal zineman; euskaraz diren filmak soilik sar genitzazke ala euskaldunek beste hizkuntza batean eginiko filmak ere kutxa berean sar genitzazke? Nik, gaurdaino, ez dut erantzun zuzenik topatu.

Grabatzen duguna grabatzen dugula, beti utziko dugu zerbait enkoadretik kanpo, baina hori ere errealitatearen parte da. Txotxongilo baten plano bat baldin badugu, baina hariak erakusten ez baditugu, ez dugu jakingo nor dagoen txotxongiloa mugitzen, edo agian ez dugu jakingo norbait txotxongiloa mugitzen ari denik ere. Nahita edo nahigabe, errealitatearen interpretazio bat da erakusten duguna.

## Begirada kritikoa

Iruditegi bat sortzen dugu ikuslearengan, eta ikus-entzuleak jasotzen duena barneratuko du, horrek izan ditzakeen eraginez jabe izanda, edo izan gabe. Ikuslea aurretik trebatuta baldin badago, gai izango da bere iritziaren haratago, erakusten zaiona begirada kritiko ba-



|||||||||||||anartz izagirre|||

||| Errealitateari enkoadre bat jartzea edo enkoadre bati errealitate deitzea ez da gauza bera

retik analizatzeko. Hori esanda, zalantzak sortzen zaizkit zezenzaletasuna bezain gai konplikatu eta delikatu batek ikastetxeetan izan dezakeen lekuaz hausnartzean.

Interresgarria da urte luzez gure herrian hain errotuta dagoen tradizio baten bilakaera erakusten duen dokumentala ikustea. Ekin-tza justua, tortura edo ikuskizun entretenigarri bat den iritzi gabe, herriko historiaren parte izan dena ukazina baita, eta aberasgarria izan liteke, agian, hain gertutik bizi izan dutenen ikuspuntua irakurtzea ere. Interresgarria bada, Sanagustin kulturgunean izango da, ez herriko eskoletan.

Gure herrian, transmisioaren izenean, zilegitasunik ez duten gauza gehiegi egiten diren sententzioak daukat, eta zenbait kasutan, transmisioaren izenean inposizio saiakerak egin izan direla ere uste dut. Umetan jasotzen duguna oso garrantzitsua da pertsona baten bilakaeran, eta ez da kasualitatea umeek sokamutil izatea desiratzea.

Dokumental batean oso beharrezkoa da eremuz kanpo uzten denaz jabetzea, errealitatearen osotasunaz gure iritzia izan dezagun. Era berean, ezinbestekoa da dokumental batzuk eremuz kanpo emititzearen inguruan hausnartzea ere. Dokumentalak ez dira leku guztietan kabitzen.\*





# “Pertsonak dira gure bost negozio lerroen erdigunea”



# M

ende erdia baino gehiago darama Sarrallek Azpeitian. Urte guztioan hainbat aldaketa izan du lantegiak, eta erronka berriei aurre egiteko prest dago Leire Elguren Marketin eta Komunikazio arduradunak azaldu duenez.

## Zer da Sarralle?

Sarralle enpresa 1965ean sortu zuen Iriarte familiak Azpeitian. Hasiara hartan, bi negozio lerro lantzen genituen: metalezko altzariak eta siderurgia ekipamendua. Caldereria Sarralle bezala hasi ginen orduan.

## Nortzuk osatzen dute Sarralle gaur egun?

Sarrallek 400 pertsona baino gehiagoko lantaldea du, ingeniarietatik ekoizpen langileetara. Hainbat kulturatako eta lurraldetako pertsonak gara, lanbide eta ikasketa anitzdunak. Eta lantalde gaztea gara, gehienok 30 eta 40 urte bitartean ditugu.

## Zer zerbitzu eskaintzen dituzue?

Sarrallen bost negozio lerro ditugu gaur egun: altzairugintza, laminazioa, metalezko bobinen transformazioa, ingeniari eta metalezko altzariak. Horien bitartez sektore desberdinentzako makinak eta instalazioak egiten ditugu. Enpresa teknologiko bat izatera heldu gara. Gaur egun, gure bezeroei proiektu batek izan ditzakeen fase guztiak eskeintzeko gai gara, ingeniari eta diseinua, fabrikazioa, garraioa, muntaia eta martxan jarritzea, bezeroaren langileei forma-

zioa eta makinaren eta instalazioen mantenua. Burdingintzaren, ingurugiroaren eta energiaren sektoreetan lan egiten dugu besteak beste, eta mundu osoan zehar ditugu bezeroak eta proiektuak.

## Non ditu lantegiak Sarrallek?

Talde osoaren zuzendaritza eta instalazio nagusiak Azpeitian ditugu. Bertan hartzen dira erabaki nagusiak, baina lantoki gehiago ditugu bai Europan, bai handik kanpo: Palentzia, Italia, Estatu Batuak, Mexiko, Argelia, Iran, Dubai eta India.

## Nola lortu duzue Sarralle gaur egun den horretan bihurtzea?

Urte guzti hauetan Sarralle osatu duten pertsonen lanari eta esfortzuari esker. Sortzaileek, akziodunek, zuzendaritzak eta langile guztiak urteetan egindako lanari eta hartuta erabakiei esker gara gaur garena. Momentu bakoitzean zeuden merkatuko aldaketei egokitu, arriskatu eta aurrera egin dugu, eta horrela lortu da Azpeititik mundura irtetea eta sektore berrietara irekitzea, produktu eta zerbitzu berriak eskainiz. Guzti hori ez zen posible izango aurretik izan diren eta gaur egun garen pertsonen ahaleginik eta berritzeko nahirik gabe.

## Zeintzuk dira Sarralleren etorkizuneko erronkak?

Sartu garen merkatuetan lehiakorak izatea eta egungo behar berrietara egokitzea Industria 4.0-ari jarraituz. Industria ingeniariaren lehenak izatea da gure helburua, eta berritu egin behar dugu, bezeroei konponbide teknologiko berriak eskaintzeko.

## Nolako garrantzia dute pertsonen erronka berri horietan?

Erabatekoa. Pertsonok ekarri dugu Sarralle dagoen tokira, eta



Galdaketa jarraia Ovakon (Suedia), Sarralle




Sarralle Egunaren lehen edizioko irudia. Sarralle

pertsonok jarri ahal izango dugu gure nahi dugun tokian. Horregatik dira pertsonak gure bost negozio lerroen erdigunea, eta jada hasi dugu Sarralleren aro berri honetan, pertsonak erakartzea, zaintzea eta garatzea dira erronka handienetakoak. Lantalde indartsu bat izan nahi dugu: berritzailea, sortzailea, parte-hartzailea eta esku artean dugu proiektu bakoitza erronka berri bat baliatzen gisan ikusten duena, garapen profesional eta pertsonala lortu ahal izateko. Berrikuntza, sormena, inplikazioa, kontziliazioa, garapen pertsonala eta koherentzia dira Sarralle osatzen dugun pertsonen eguneroko ekintzak eta erabakiak gidatu behar dituzten gure sei balioak.

## Sarralleko pertsona horiekien pentsatuta osatu al zenuten lehenengo Sarralle Eguna?

Bai, halaxe da. Urte gutxitan aldaketa asko izan ditugu. Asko handitu gara, eta guztiok biltzeko momentua zela iruditu zitzaigun. Urtarrilean osatu genuen lehenengo aldiz Sarralle Eguna; izan ere, bulegoetatik eta egunerokotasunetik irten eta elkarrekin egoteko une bat behar genuen taldea mantentzeko. Gure instalazioetan horrenbeste pertsona biltzeko tokirik ez zegoenez, Azpeitian ditugun areto desberdinak erabili genituen, hala nola Soreasu antzokia eta Sanagustin kulturunea. Esperientzia oso polita izan zen, eta Sarralle Eguna urtero ospatzeko asmoa dugu.

## HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Badu balio erantsia.

Lan bila dabilela euskara hutsean jakinarazi du 25 urteko herritar batek. Euskaraz ikasi du antza jatorriz pakistandarra den erizain laguntzaileak. [Uztarría](#)

**BEHERA.** Hizkuntzari ez dio arreta handirik jarri.

Kartel honen egileak zaindu du tipografia, hizkien tamaina eta orrien kolorea, baina hizkuntzari ez dio kasu handirik egin. Adi bai, hizkuntz hautuarekin! [Uztarría](#)\*



Fernando Alberdi.

## ESANA DAGO

“Arrakasta handia izan du mango eta Ezpeletako piperrauts izozkiak”

“Gustura nago; sektore honetan garrantzitsua izaten da horrelako probak irabaztea”

FERNANDO ALBERDI  
izozkigilea

“Ez da normala euskara galaraztea”

“Zoritxarrez, arbitroek gehienetan erdaraz hitz egiten dute eta ohituta gaude horretara”

OMAR AIZPURU  
Elgoibarko  
entrenatzailea

**IKA** argi lanak s.l. Instalakuntza Elektrikoak  
Urteko: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71  
ikzarg@lanak@gmail.com www.ikasistemak.com  
20730 AZPEITIA

**CITROËN** Aiertza Autoak  
943 811 915 - AZPEITIA  
aiertzaautoak@telefonos.net  
MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

# Egoskorra

**A**restik, Pakok ez Gabrielelek, zioen bezala, “nire egia defendatuko dut” –ez da erabat zehatza, baina niri horrela izatea komeni-. Bartzuek, eztabaidan ez jarraitzearren, berehala ematen diote arrazoia aurrekoari. Nik, normalean, ez. Egiaren jabe naizela uste badut, neure egiaren hormari tinko eusten diot kontrakoa dioenak bere egia benetakoa dela erakutsi arte –askotan, gero ere bai-.

Bai eta ez. Aurrenekoa goxoa, bigarrena takarra. Otzana eta esanekoa izan arren, *bai* baino gehiago maitatzen hasi naiz ez. “Bai” esanda errazago bizi zara; “ez” erabiltzen has-

ten bazara, arazo eta buruko min gehiago duzu. Seguru. “Nola esango diot ba ezetz”, “eta haserretzen bada?”, “bakeak gehiago balio du, eta esaiozu baietz”. Esaldiok ezagunak egingo zaizkizue.

Unean uneko arazotxoei aurre egiteko, Lopez Ufarte txiki-handiak dotore egiten zuen moduan, izkin egitea besterik ez. Horretarako, “bai” eta kito. Baina egunean eguneko arazotxoak gaindituz etorkizun sendoa eraikitzeke, Iñigo Martinezek bezala, gozo, baloia luze eta urrun jaurtitzea bezalakorik ez. Hori egiteko, tarteka –luze jotzearena hiretzat ere bai Euse-



## txetxu urbieta

bio-, ahozkerak takarreko ez hitz gaiztoa erabili behar. *Baik* ez du azalpen beharrik, txantaia emozionalik ere ez. *Ezak*, azalpen sakonaz gain, aurrekoaren muturrak negar malkoen saltsa mikatzean dakartza. Egunen batean, ordea, zu eta muturren jabea, biok konturatuko zarete gaurko ezaren balioaz.

Burua lanean jartzean, burutapen horiek izaten ditut. Baina gero, behar den unean, nire lagun jakintsu batek esan zidana erabili zalea naiz: “Hik beti baietz esan, eta gero egin nahi edo ahal dekena”. Hori bai, inoiz ez ahaztu, ez beti da ez. Kontu horrekin, broma gutxi.✱

## IKUSTEKO!



### ▲ ERROTA ZAHARRA TEILATU BERRIAREKIN.

Urrestillako Errota baserri zenaren errota zaharra, baserria bota ondoren zutik mantendu zutena, teilatua erabat hondatuta zuela esnatu zen urtarrilaren 7an, Errege egunean bota zuen elurteak azken errematea emanda, antza. Teilatu berri-berria egin zion, ordea, Azpeitiko Udalak urtarrilaren amaierarako, eta hau da orain erakusten duen itxura. 📞📍 **Mailo Oiarzabal**✱

## OTSAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



### 500 urte

**FESTAK.** Ez da makala; heldutasun eta eskarmentu handia zalantzarik gabe. Ibilbide luze honetan jarraitzeak badu bere meritua. 500 urte betetze honek eman du, ordea, zeresana. Tradizioaren izenean edo, ohitura mantendu eta eboluzionatu gabeko urteurrena ospatu da. Bada, baina, bestelako irakurketarik: animalistena, zezenaren aldekoa eta animaliekin egiten den erabilera salatzen duena. Bada nabarmentzen hasi den beste kontu bat: emakumearen parte-hartzea. Emakumea tradizio horren kapoan gelditu da, ikustera asko eta asko joaten dira, baina ez du emakumeak sartzeko aukerarik izan. Beti sokamutilak izango dira, zezenak harrapatutakoak mutilak izango dira, Elegante Egunean trajedunak bakarrik ibiliko dira zezenean... Eztabaida mahai gainean dago.



Juan Carlos Arellano



### 0,25

**EKONOMIA.** 0,25. Horrela esanda ez du ezer esanguratsurik adierazten. Soldataren igoera dela esaten badugu, ordea, berehala gogoratuko ditugu horrelako argazkiak eta laster etorriko zaigu burura inguruan dugun edozein alargun, pentsiodun... Egoera larrian dira asko, eta igoera hori, uxkeria izateaz gain, lotsagarria da. Igoera horrek ez du laguntzen eguneroko ogiaren zati bat erosten ere. Duintasuna aldarrikatzeko, justizia eskatzeko eta elkartasuna elkartrukatzeko garai da. Aupa zuek!



### Zer dotore!

**HONDAKINAK.** Edukiontzi berriak estreinatzeko gogoia piztu zait bat-batean. Egia esan, ez dut zabor asko sortzen, baina oraingo honetan saiatu naiz baztertuta nituen zenbait gauza botatzen. Lehenbizi ikusi ditut paperaren eta ontzi arinen edukiontziak, zer elegante! Aho handi-dunak dira eta nahikoa erosoak, baldin eta azken momentura arte etxean

menditxoak pilatzekoak ez bagara. Gero ikusi dut organikoarena; apalagoa bada ere, badu bere enkantoa. Banketxeko txartelaren antzerakoarekin joan, sartu eta zast!, atea zabaltzen da. Horiek bai asmakizunak. Grisa ere ikusi dut, ea nolako sorpresak ekartzen dizkigun... Kaka zaharra, orain arte egin ez duenak, ez du ezer egingo! Horrelakoak gara.\*

## INKESTA

ohiturarik ba al  
duzu garizuman  
bijilia egiteko?

 Ainitze Agirrezabala

### GORKA BIAIN

35 urte



**“Gurasoenean bizi  
nintzenean etxean  
bazuten bijilia  
egiteko ohitura.**

**Handik kanpo, ordea, ahaztu  
egin dugu usadio hori zer den”.**

### MAITE SALEGI

35 urte



**“Zer den badakit,  
baina ez dugu  
ohiturarik egiteko.  
Baserritarra naiz**

**izatez, eta oroitzen naiz aitonak  
eta amonak bijilia egiten zutela”.**

### JULEN AGIRREZABALA

23 urte



**“Zer? Zer da hori?  
[Kazetariak  
azalpena eman  
dio] Aaa...! Usadio**

**horren berri banuen, baina  
Elizako kontuetan ez naiz oso  
jantzia. Gainera, kuadrillan  
haragi jan handienak ostiraletan  
egiten ditugu”.**



# Koloretako zaborra

**B**irziklatzea garrantzitsua dela denok jakingo dugu honezkero. Nik birziklatzen dut. Bai. Etxean bost edukiontzi ditut: organikoa, errefusa, plastikoa, beira eta papera; bakoitza bere koloretxoarekin. Olioa ere bereizten dut. Tapiiak zorro batean. Gailu elektronikoak Garbigunera. Arropa zaharrak dohaintzan. Harategiko papera bitan zatitu: erdia horira, erdia urdinera... Birziklatzen ez duten etxebizitza batera sartuz gero, ezin izaten diot galdera honi eutsi: “Zergatik ez duzue birziklatzen?”. (“Hemen da Greenpeacekoa”, pentsatuko dute, agian, baina momentuz ez dut zaplaztekorik jaso).

Edukiontziena, ordea, auzi konplexua da. Zenbat aldiz aldatu dute edukiontzien sistema azken urteotan? Organikoaren eta errefusaren bereizketa: hasieran jaki gordinak soilik, gero sukaldatuak ere bai; atez ateko sistema ahoz aho ibili genuen; lur azpiko ontziak... Eta orain, Azpeitiko ia edukiontzi guztiak lekuz aldatuz dizkigute. Beraz, ikasi egin behar nora eramatea egokitzen zaizun, eta ziur aski, niri bezala, lehen baino urrutiago




## lierni varela

jarri dizute geltokia. A, eta ez ahaztu txarteltxo edo txipa!

Kezka da aldaketen iturri, noski. Ez dugu aski birziklatzen, ehunekoa igo behar da. Hondakinak herritarren %40k sailkatzen omen ditugu, eta hori ez da nahikoa, %70era heldu behar dugu. Ez dut uste birziklatzea zeregin gaitza denik, gainera. Ikasi eta automatizatu... Bartzuentzat lana da, ordea; bereizketa egiteak pentsarazi egiten du, eta buruhausteak sortu ere bai: “Esne-potea plastikora? Baina azala kartoizkoa du eta!”.

Kontu guzti honen erronka birziklatu nahi ez duenari gogoa sartzea da, haren ohiturak aldatzea sortutako errefusa kopurua jaisteko. Haatik, gaikako bilketak eskatzen dituen esfortzuak ez dira ekonomikoki saritzen, zigortu baino. Begira ezazue Zubietarantz, bestela, gure fakturak puztearekin mehatxatzen gaituen erraus-tegi-munstrora. Halako panoramarekin, eta gozokiaren faltan, birziklatzen ez duenak nahiagoko du betikoan jarraitu: dena grisera eta kito.\*

**galdetzen hasita, nork ezabatu ote du  
birritan elizkaleko pareta batean  
egindako horma irudia?  Uztarria**

# Ekairi, minez eta damuz

**D**amu saminez idazten dizut, eta nahigabez berterik. Barkatu, Ekai, hain berandu iritsi izana. Inor ez ginen garaiz iritsi, Chrysallis izan ezik, adin txikiko transexualen familien elkarte. Ondoan eta lagun izan zen nuen beti, gu atzera geratzen ginen bitartean. Eskerrik asko, Chrysallis, bizia bere kolore guztiekin zaintze-gatik!

Zure institutuko irakasle eta ikaskideak ere garaiz iritsi ziren, zeure mutil-izenez deitzen zintuzten naturaltasun guztiz: Ekai. Inork baino hobeto dakizu, halere, zenbat egoera deseroso eta umilgarri diren oraindik, eta izango diren, gure pentsamoldeek irauten duten eta arauak aldatzen ez ditugun bitartean.

Oso berandu iritsi gara. Eta zu lasterregi ibili zinen beharbada. Baina zer bota dakioke aurpegira indar nerabeak agortuta, ispiluan arrotz gertatzen zitzaion gorputza garatzen ikusita, adinik zailenean, etsita, bere buruaz beste egin duen gaztetxoari?

Ez zen garaiz iritsi Guruzetako Genero Unitateko tratamendu hormonal, zinena izaten jarraitu ahal ze-



## joxe arregi

nezan. Ez da garaiz ibili Eusko Legebiltzarra, zaharkitua geratu den transexualei buruzko legea gaurkotzeko. Análisi eta txosten psikiatrikoak lekuz eta garaiz kanpo daude. Gure aurreiritziek eragindako desoreka da zuena; gure arazoa, ez zuena. Gure transfobia. Barkatu, Ekai. Ez da garaiz iritsi denetan aurrena behar zuena: Jesus eraberritzailearen Eliza. Iritsi ez ezik, abiatu ere ez da egin oraindik, antzinako tabuei loturik, “genero ideologia” deitzen duten mamuaren beldur. Barka iezaiezu, Ekai, ez dakite-eta zer egiten duten.

Eta zure gurasoak? Haiek ez zuten iritsi beharrik, zurekin egon baitira beti, neska jaio zinenean bezalaxe mutil sentitzen hasi zinenean, zinena izaten lagunduz beti, zure maitale eta miresle. Ziur naiz oraingo dolu-min samina erdimit bilakatuko zaiela, zu birjaioarazteraino, eta elkarrekin biziko zaretela berriro, Ondarroako portu-lurrinak eta itsas aireak amastuz.



Zure heriotza atsekabe zaigu, zure bizitza pozgarri. Zure kausari eutsiko diogu, “borrokan erortzen den azken samuraia” izan zaitezten, zeuk zenioen bezala.\*

HAU HOLAXEENK

ZUEN LAGUN IZAN NAHI DUGUI



txipi txipi



## Aukerak agortu

**B**a bai. Lolitak "perreatu" zuen. Eta erritmo itsaskor horretan murgilduta berarekin dantzan nembilela esan zidan: "Lasai! Kanta bat besterik ez da". Baina kanta sorta luze batean bihurtzen da gaua azkenean.

Arduratuta nabil aspaldian. Ez gara esaten duguten bezain zaharrak, baina nahiko genukeen bezain gazteak ere ez jada. Ez genituen barrikadak ezagutu, baina Barricadaren *No hay tregua* kanta bozgorailuetatik entzuten zen garaiak harrapatu gintuen. Eta hura ere kanta soil bat zen. Baina errepikan "ETA" edo "tregua" oihukatu aukeratu behar izaten genuen. Mo-

mentuak aukeratu, aldarrien aldeko kantak abesteko edo gure gurasoen musika "moderno"-rekin bat egin eta beste era batera dantzatzeko. Sortzeko hobesten genuen hizkuntza aukeratu behar izan genuen, gaur egun hizkuntzak sortzailea aukeratzeko duela entzuten dugun arren. Aukeratzeak erabakiak eskatzen zituen, eta denok dakigu erabakiak hausnarketarako dei galduak direla. Eta beldur naiz gaur egungo aukera urriak erabaki urriagoak ez ote dakartzan. Hausnarketa gutxi albo kalte moduan. Lozorroa ondorio. Anestesia.

Erritmo eta hitz errepikakorrak besterik ez

**felipe murillo**  
entzuteak eskaintzen digutena nola irensten dugun pentsatzera narama. Inongo tripako minik gabe. Bai, Lolita, beldur naiz. Kanta soil bat da, baina aisialdian entzuten dugun musika erlatibizatzen iritsi garen moduan, beste errealitate batzuen garrantzia ere ezaba genezake. Eta hemendik urte batzuetara talderen batek "reggaetia izan da gure heziketa sexuala" abesten digunean, ez gaitezen harritu. Agian, harritzekoa euskaraz abesten duen modako talderen batekin topo egitea izango da. Agian, erabakiak gaur hartu behar genituzke, zerbait galdu beste zerbait irabaz dezagun.\*



## Erotikan Plax!

**Z**abaldu berri duten Elikaguneko kidea da Odriozola. Berari egokitu zaio hil honetan galderei erantzutea.

**Hirukotean proiektuari ilusioz ekin diozue. Nola zaintzen da hirukotea?**

Umerez eta mokadu goxoak egin ez.

**Elikadura burujabetza helburu duen proiektua da zuena. Sexualitatean, zerk egiten gaitu burujabe?**

Elikaduran bezala, garaian garaiak.

**Bertako ekoizpenari garrantzi berezia ematen diozue. Batzuetan, etxekoa baino exotikoagoa ez al da kanpoko?**

Bertakoak nahikoa lan ematen du, kanpokoari begiratu gabe.

**Elikagaien inguruko informazio gardena duzue. Sexu kontuetan, zertan gara edo ez gara gardenak?**

Kontu horietan ere ez naiz isilik egotekoa; haragi kontuak beti garbi.

**Ikerketa batzuek diote hain-**

### AGURTZANE ODRIOZOLA



**Jaio.** 38 urte.  
**Herria.** Azkoitia.  
**Bizitokia.** Azkoitia.  
**Lanbidea.** Elikaguneko kidea.

**bat jakik orgasmoak intentsitate handiagok bizitzen laguntzen duela. Zein dira Elikaguneko jaki estimulagarriak?**

Bertakoa eta garaiak kontsumituta, beti osasuntsu eta gogotsu.

**Zertan entrenatu behar dugu?**

Gardenagoak izaten.

**Zerk pizten zaitu?**

Jende alaiak.

**Nola pizten dituzu besteak?**

Haragi ederrarekin [barreak].

**Afari erromantiko baterako menua?**

Postre gozo-gozo bat.

**Nola ikusten duzu sexualitatearen gaia etorkizunean?**

Geroz eta irekiago.

**Elikaguneko zer usainek erakartzen zaitu?**

Xabiren gazta tartaren usainak.

**Plan bete-bete bat?**

Egun lasai bat familian.

**Zer iruditzen zaizu Plax sexologia zerbitzua?**

Edozeinek izan ditzakeen zalantzak edo kezak argitzeko zerbitzu egokia da.\*

haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitz-eko kideak)

Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:  
Sindikatu Zaharra, 2. solairua  
[www.azpeitikoudala.eus/sexu](http://www.azpeitikoudala.eus/sexu) (688 89 79 20)  
Hitzorduak, martxo: hilaren 10ean  
(16:00-19:00) eta 21ean (10:00-13:00).



A person is shown in silhouette, leaning over a table and writing in a notebook. A glowing lantern is on the table, casting a warm light. The background is a textured wall.

► **IKASLEAK SENTSIBILIZATU.**

Errefuxiatuen gaia puri-purian dagoen errealitatea da gaur egun, eta errealitate horretara gerturatzea eta sentsibilizatzea du helburu 'Mugetatik haratago' hezkuntza proiektuak. Hainbat ikastetxetako ikasleak Loiolako Santutegira bisitak egiten ari dira hilabeteotan, besteak beste, errefuxiatuen egoerarekin enpatizatzen. Eta bisitak egin ostean eskoletan lantzen dute gaia. Gainera, ikastetxe batzuei kulturartekotasuna lantzen jarraitzeko balio die egonaldiak. Irudian, hezitzaile bat "ihesi datorren" ikasle baten dokumentazioari begira.

# Errefuxiatuen azalean

'Mugetatik haratago' hezkuntza proiektua irailaren bukaeran jarri zuten martxan Loiolako Santutegian. Hasi dira ikasleak lehen bisitak egiten. 📎📷 Nora Alberdi

---



## ▼ HEZITZAILE TALDEA.

Bost hezitzailek egiten dute lan bisitetan; horietako lauk harreman zuzena dute ikasleekin, eta bosgarrena koordinatzaile lanetan aritzen da. Hezitzaileek aurreprestakuntza jaso dute bisitak eskaini ahal izateko, eta abuztuan hasi ziren santutegia atontzen eta bisitak prestatzen. Otsailean, berriz, Greziara joan zen hezitzaile taldea, errefuxiatuen kanpamendu bat bertatik bertara ezagutzeko eta han jasotakoa Loiolara ekartzeko. Argazkian, haur bat bere herrialdetik beste herrialde batera joateko bidean aurrera jarraitu ahal izateko proba bat egiten.



## ► METODOLOGIA.

Loiolakoa martxan jarri aurretik, bazen Xabierren (Nafarroa) ikasleak Indiako egoerara gerturatzeko egitasmo bat. Egitasmo hark harrera ona izan zuela ikusita, ikastetxeekin errefuxiatuen gaia lantzeko prest agertu zen Loiolako Santutegia, eta martxan jarri zuen proiektua. Irudian, hezitzaile bat eta bi ikasle Santutegiko bisita egiten duten aretoetako batean.



### ▲ JATORRITIK IHES.

Hiru fasetan banatzen dute egonaldia. Lehen eta bigarren egunean, hainbat rol lantzen dute lau taldetan banatuta. Hain zuzen ere, ihesaren lau arrazoi posible lantzen dituzte: emakume izateagatik herrialdea utzi behar dutenak; hondamendi naturalen ondorioz ihesi doazenak; gudaren ondorioz alde egin dutenak; eta barne gatazkaren batek bultzatuta beren herria utzi behar dutenak. Lehen egunean, aterpetxera iristen direnean, sirena bat jarri eta ihesaldia irudikatzen dute Loiolako Santutegiko lorategian. Plastikozko poltsa bat ematen diete ikasleei, eta han egonaldiko hiru egunetan beharrezko izango dituzten bost gauza sartzen dituzte. Gero, lorategitik pasatu eta errefuxiatuen kanpalekura iristen dira. Irudian, polizia jantzitako hezitzaile bat eta bi ikasle, santutegiko pasillo batean.

### ► HESIA GAINDITU NAHAN.

Bigarren egunean, errefuxiatuen kanpalekuan hasten dute eguna: ikasleei nazioarteko finantzazioa bukatu dela eta handik norbere kabuz atera beharko dutela esaten diete hezitzaileek. Ondoren, Trantsizioa deituriko ginkana egiten dute Loiolako santutegiaren azpiko geletan; han, errefuxiatuek beren herrialdea utzi eta iritsi nahi duten herrialdera egin beharreko ibilbidea irudikatzen dute. Arratsaldean, berriz, Europako hesia edo muga sinbolizatzen dute, ikasleek errefuxiatu estatusa egiaztatzen duen txartel gorria eskuratzeko. Hirugarren eta azken egunean, aurreko egunetan bizitakoaz hausnartzen dute. Irudian, polizia jantzitako hezitzailea muga zaintzen, eta ikasleak hesiaren bestaldean.





### ► **EKINTZA TXIKIAK.**

Ikasleek aterpetxean egiten dituzte otorduak, eta lo ere bertan egiten dute. Dena den, lehen egunean, errefuxiatuen kanpalekura, Loiolako Santutegira, iristen direnean, bertan afaltzen dute; arrosa eskuarekin jan behar izaten dute, eta hezitzaileek diotenez, horrek “izugarri” haserretzen ditu ikasleak. Dena den, uste dute ekintza hori beharrezkoa dela bisitan doazen umeak errefuxiatuen lekuan jar daitezen. Argazkian, polizia jantzitako hezitzailea ikasleei errefuxiatu kanpalekutik ihes egiteko ordua dela adierazten.

### ◀ **ADIN TARTEA.**

Egonaldiak, gehienez, 60 ikasleko taldeentzat antolatzen dituzte. Erreportaje hau egin zen egunean Bilboko Indautxu auzoko Jesuitak eskolako ikasleak ziren egonaldian. DBH 2. eta 3. mailetako ikasleei zuzendutako hezkuntza proiektua da ‘Mugetatik haratago’; batetik, adin horietako ikasleak haurtzaroaren eta heldutasunaren mugan daudelako, haiek gaian sakontzeko gaitasun handirik ez dutelako eta dinamiketan ondo sartzen direlako; eta bestetik, beraiei zuzendutako proiektu gutxi daudelako. Ikasleak jolasaren eta errealtatearen artean murgiltzen direnez, hunkitu ere egiten dira, eta hezitzaileek diotenez, Loiolan bizi izandakoak ikasleei “gerora fruituak emango” dizkie. “Proiektuak ikasle bakoitzaren ohiko bizimoduan izango duen eragina aurrerago ikusiko da”, esan dute. Irudian, ikasleak bigarren egunari ekiteko prest.



### ▲ **JOLASA ETA ERREALITATEA.**

Seriotasunaren eta jolasaren artean ibiltzen dira ikasleak egonaldian: zenbaitetan, haserrea nabaritzen da nerabeen aurpegietan; beste batzuetan, ordea, barre algarak egiten dituzte. Hezitzaileen arabera, ikasleek emozioak kudeatzen ikasteko proiektutzat har daiteke ‘Mugetatik haratago’. Haiek azaldu dutenez, egonaldietan izaten diren taldeekin egiten dituzten amaierako balorazioak “beti positiboak” izaten dira. Argazkian, ikasleak ilaran, aurrean duten polizia dokumentazioa erakusteko prest.\*



# JON GURIDI

futbol jokalaria

## “Realean urte asko egitea nahiko nuke”

Lesio luze baten ostean, pixkanaka Realaren lehen taldean lekua egiten ari da Jon Guridi. 2022ra arteko kontratua du talde txuri-urdinarekin. 📝👁️ Ihintza Elustondo

**K**amisetan 23 zerbaki duela, eta 23 urte egin berri. Geldirik denbora luze egin ostean, “oso gustura” dagoela dio Jon Guridik. Eskuineko belaunean izan duen lesioa ahaztu eta aurrera begiratu nahi du. Lasai dago, bere aukera noiz iritsiko zain. “Ez dut beldurrik”.

**Urte urte lan egin ostean, pixkanaka lehen taldean lekua egiten ari zara. Zer esan nahi du horrek zuretzat?**

Txikitatik amestu dudana gauza bat da Realarekin lehen mailan jokatzea, eta horretarako lan egin dut. Hasieran ez duzu pentsatzen horra iritsiko zarekin, oso urruti ikusten duzu; baina urteak aurrera joan ahala, konturatzen zara iristeko aukerak dituzula. Jubeniletatik Realaren

bigarren taldera pauso handia izaten da, baina behin salto hori eginda, edozein momentutan deitzen dizute lehen taldeetik. Orain esan dezaket lehen mailako jokalaria naizela, eta oso gustura nago.

**23 zerbakia eman dizute duela gutxi. Gustatzen al zaizu?**

Zerbakiak ez dauka garrantzirik, baina, egia esan, gustatzen zait. Michael Jordanek eta David Beckhamek ere 23a eramaten zuten soinean, eta zerbaki esanguratsua da.

**Iazko apirilaz geroztik geldirik egon ostean, duela gutxi hasi zara normal entrenatzen, eta, pixkanaka, jokatzen ere ari zara. Zer moduz sentitzen zara?**

### |||DATUAK|||||

|||**Jaio.** 1995eko otsailak 28.

|||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizitokia.** Azpeitia. |||**Lanbidea.** Futbolaria.

Lesioa atzean utzi dut, ahaztuta dudala esan dezaket. Orain, berotu arte antzematen dut pixka bat gogortuta bezala dudala belauna, baina normal entrenatu eta joka dezaket.

**Zure egoera hobetzen ari bada ere, ezin esan orain arte zorte ona izan duzunik. Lehen taldearekin debutatu zenuen egunean lesionatu zinen.**

Aurretik minez nenbilen, eta asmatu nuen lehenago ezer ez esanda, isilik egon nintzelako debutatu ahal izan bainuen. Debutatu eta hurrengo astean, ordea, ezin ibilita gelditu

nintzen entrenamendu bat bukatu eta gero. Medikuek erresonantzia egin eta ebakuntza egin behar zidatela esan zidaten. Aste horretan Leganesen kontrako partida genuen, eta uste dut berez jokatu egin behar nuela. Nik esan nien ea jokatu eta gero operatzea posible al zen, eta ezetz erantzun zidaten. Hala ere, detailea eduki zuten: egun horretan bertan esan zidaten kontratua berrituko zidatela.

**“Osteocondritis discante”. Zer pentsatu zenuen hori entzun zenuenean?**

Zer zen ere ez nekien, lesio arraro samarra da kartilagoarena. Esan zidaten gehienbat gazteek izaten dutela hori, 15-16 urte ingururekin. Ebakuntza ez zen konplikatua izan, hoge minutuan-edo egin zidaten,



baina errekupeazioa pixka bat luzea izaten da. Hala ere, uste dut okerragoa dela lotailu gurutzatua haustea, gero aukera gehiago baitutuzu berriz ere puskatzeko. Nire lesioarekin ere agian egongo dira errepikatzeko aukerak, baina...

**Aurrera begira, aurreikuspen ona eman dizute?**

Bai, orain behintzat futbol ibilbidearekin jarrai dezaket. Gerora ja ez dakit zer gertatuko den.

**Gogorra egingo zitzaizun hainbeste hilabete geldirik egon beharra.**

Bai, beno. Hasieran esan zidaten hiru hilabetez makuluekin ibili beharko nuela, eta ja ideia bat egiten duzu. Gero, hasten zara gauzak egiten pixkanaka, gero eta gertuago ikusten duzu epe hori, eta nire kasuan, behintzat, ikusten nuen ez nuela aurrera egiten belaurarekin. Izan ere, beste lesio bat azaldu zitzaidan, edema bat hezurrean, eta min ematen zidan korrika nahiz ariketak egitean. Denbora dezente egon nintzen horrekin. Hasieran ideia bat eginda lasai gelditzen zara, baina gero ikusten duzu luzatzen ari dela, eta psikologikoki gogorra egiten da. Pasatu da, beraz, ahaztuta hobe.

**Ilusorik galdu al duzu inoiz?**

Garai onean tokatu zitzaidan lesioa, denboraldi bukaeran, eta errekupeazioa ere oporretako fasean egin nuen, gehienbat. Ilusioa ez nuen galdu, banekien ondo jarriko nintzela. Gaur egun, normalean, ebakuntza denetatik ondo ateratzen zara. Gainera, psikologikoki indartuta itzultzen zara lesiotik, eta gimnasioan hobetzeko dituzun gauzak ere lantzen dituzu denbora horretan. Beraz, askotan, indar gehiagorekin eta dena bueltatzen zara.

**Ez da erraza izango lehen taldean lekua egitea, ezta?**

Ez, zaila da. Gainera, erdian jokatzen dugun futbolari asko gaude taldean, eta lesio luze batetik itzuli naizela kontuan izanda... Entrenamenduetan erritmo onean ikusten dut neure burua, baina partidetan oso ezberdina da dena; beste errit-

mo bat egoten da zelaian. Orain, nire aukeraren zain nago. Iritsiko da iritsi behar duenean, eta iristean aprobetxatu egin behar.

**Eusebio Sacristan entrena-tzailearen estiloa zure ezaugarrietara moldatzen dela diote.**

Bai, Eusebiori baloia edukitzea gustatzen zaio, ukitu eta ukitu ibiltzea, eta uste dut nire ezaugarri onenetako bat horixe dela: baloia edukitzeko eta jokoa ikusteko ahalmena. Alde horretatik, zorteduna naiz, berari hori gustatzen zaiolako, eta eskerrak eman nahi dizkiot nirekin konfiantza izan duelako.

**Reala ez dago momenturik onenean. Taldearen helburuetako bat zen Europa ligan ahalik eta urrutien iristea, eta duela gutxi kaleratu egin zaituztete. Zer helburu izango dituzue aurrerantzean?**

Esperantza handia genuen horretan jarrita, eta desilusio ikaragarria izan da Europa ligatik kanpo gelditzea. Orain, lehenbailehen egoera horri buelta eman eta denboraldi honetan ere Europa ligako postuetan sartzea izango da helburua. Oraindik partida asko gelditzen dira jokatzeke, eta posible ikusten dugu. Baiorra naiz.

**Eta zuk, pertsonalki, zer lortu nahiko zenuke Realean?**

Denboraldi honetan jokatzeke geratzen diren partidetan ahalik eta minutu gehien izatea nahi dut, eta, ahal den neurrian, horiek aprobetxatzea. Horrez gain, Realean urte asko egitea nahiko nuke.

**Orain ja badirudi ezin dela horrelakorik esan. Ikusi besterik ez dago Iñigo Martinezek esandakoek zer zalaparta sortu duten.**

Hala da, baina nik nahiko nuke.

**Nola bizi izan duzue taldean Iñigo Martinezek Athleticera joateko hartu duen erabakia?**

Dena oso azkarra izan da. Goiz batean esan zigun bat-batean bazihoala. Denok agurtu genuen; giro txarrik ez zen egon, baina ni pertsonalki ez nintzen bat etorri bere erabakiarekin. Besteak ez dakit.

### Ausartuko al zinateke ateren bat itxita dagoela esatera?

Hori ezin da jakin, momentuan momentukoa bizi behar duzu. Orain nik dakidana da Realean oso gustura nagoela eta urte askoan hor jarraitu nahi dudala.

### Mikel Labaka da zure entrenatzaileetako bat. Zer moduz moldatzen zara berarekin?

Lagun bat bezala da niretzat. Konfiantza handia ematen dit, eta azpeitiarra izanda, are gehiago. Harreman ona dugu.

### Eta taldekideekin, zer moduz moldatzen zara?

Ondo. Giro ona dugu taldean.

### Oroitzen al duzu noiz ukitu zenuen lehen aldiz baloia?

Egia esan, ez. 5 urterekin edo? Horrelakoren bat. Aitarekin eta anaiarekin ibiltzen nintzen paseak egiten eta; aitak esaten dit beti baloiarekin ibiltzen nintzela, baina ni ez naiz gogoratzen.

### Non aritzen zinen txikitan futboleant?

Edozein lekutan. Parkeetan, areto futboleko kantxetan, belarretan...

### Pilota ere gustatzen zitzazun, ezta?

Bai, pilotan ere ibiltzen nintzen, baina Realean hasi nintzenez, utzi egin nuen. Pena eman zidan, asko gustatzen baitzait pilota. Nahikoa ondo moldatzen nintzen, eta oroitzen politak ditut gordeta. Txapela-eta irabazi nituen, beste bi final galdu ere bai... [barreak].

### Zein futbolari gustatzen zitzazun txikia zinelan?

[Zinedine] Zidane gehienbat, baina gehiago ere bai: [Thierry] Henry, Ronaldo [Luis Nazario]...

### Izan al duzu erreferenterik inoiz?

Mikel Aranburu eta Xabi Alonso. Xabi Prieto ere bai.

### Orain Xabi Prieto taldekide duzu.

Esperientzia handia du, eta gazteoi asko asko laguntzen digu. Asko ikasten dugu berarekin.

### Kimu mailan, Lagun Onaken hasi zinen jokatzeko. Urtebete egin zenuen han, eta 11 urterekin, Realera jauzi egin zenuen. Nola oroitzen dituzu Realaren harrobien emandako urteak?

Ohorezko infantil mailan hasi nintzen Realean. Garai haietan ez zegoen infantil txikien mailako talderik, eta ni zaharragoen taldean sartu nintzen. Hasieran, kostatu egin zitzaidan taldera egokitzea; zaharragoek indar handiagoa zuten, adin horretan asko antzematen da aldea. Baina, azkenean, entrenamenduen bidez denera ohitzen zara, eta urte politak izan ziren. Zubietara joan-etorriak egiten, denbora asko pasatutakoa izango zara taxian. Entrenamenduetatik berandu iritsiko zinen etxera, eskolako lanak egiteko... Gogorra ere izango zen, zenbaitetan.

Bai. 17:00etan-edo hartzen genuen taxia, eta 21:30-21:45 aldeira iristen ginen Azpeitira bueltan. Umetan, hala ere, ez genuen hainbeste etxeko lan edukitzen; gero ja Batxilergoan eta beste kontu bat izaten zen: lanak egiteko, beti azken momentuan ikasten, gauean sarritan... Alde horretatik, pixka bat gogorra da, baina, azkenean, horretara ohitzen zara, eta antolatuz gero, ondo eramaten duzu.

### Orain, zerbait ari al zara ikasten?

Gorputz Heziketa ari naiz ikasten, *on line* erara.

### Erraza al da futbola eta ikasketak uztartzea?

Bai, denbora soberan dugu. Arratsaldeak libre izaten ditugu, eta alde horretatik, ez dugu arazorik.

### Futboletik bizitzeko aukera izan dezakezun arren, garrantzia eman al diezu ikasketei?

Futboletik bizi zaitezke dena ondo joaten bazaizu, baina ezin da jakin inoiz zer gertatuko den. Niri gertatu zaidan bezala, agian, edozein momentutan lesioaren bat azaltzen zaizu, eta gero ez zara ondo erreku-peratzen, edo ez dute zurekin kontaktatzen taldean... Eta, agian, ikasketak behar dituzu aurrera egiteko. Zorteduna sentitzen zara lehen taldean jokatzeko aukera izan duzulako, edo lanaren ondorio da hori?

Zortea gutxi dela esango nuke nik.

“Aitarekin eta anaiarekin ibiltzen nintzen paseak egiten umetan”

“Futboletik bizi zaitezke dena ondo joanez gero, baina ezin da jakin inoiz”

Pixka bat behar da futboleant, baina nik uste dut urteetako lanaren emaitza dela. Ordu asko pasatzen ditugu entrenatzen egunero, eta, azkenean, aukera eman didan entrenatzaile bat azaldu da. Alde horretatik izan dut, agian, zorte pixka bat, baina beste dena lanaren ondorio da. Zortea bilatu ere egin behar da.

### Nola oroitzen duzu zure debuteko eguna?

Urduritasun handiarekin. [David] Zurutza lesionatu egin zen, eta aste horretan, ez dakit zergatik, pentsatzen ari nintzen jokatu egingo nuela. Lagunekin-eta ez nengoen berdin; urduri nengoen, isilik, neure munduan bezala denbora guztian. Eta lagunak esaten zidaten: “Zer pasatzen zaik?”. Ostiralean entrenatzera joan nintzen eta Labakak esan zidan: “Bihar jokatu egingo duk”. Lo ondo egin nuen, baina zapatuan urduri egon nintzen, autobusean eta. Gero behin

**EREGI** MARKA MORTASUNA  
KOMUNIKAZIO ESTRATEGIA  
IRUDIA ETA DISEINUA  
EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA HARREMAN PUBLIKOAK

Goiko kalea, 5 - 3A - Azpeitia 943 080 688 www.eregi.eus

Euskal Herria, 01  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 16 16 40

**Ekain** Laritakoak  
943 16 16 40

ALBAITARI KLINIKA

**AZKOITIA**

ERLOJU KONPONKETAK

Arana, 5  
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

**ARDO-ZALEAK**  
ELKARTE ERABERRITUA

BAZKIDE BERRINTZAT AUKITA  
2500 euro

Harreman/Arano: 930 35 99 21 edo ardozaleak1983@gmail.com

## ||| MOTZEAN |||||

### FUTBOLARI BAT?

Zinedine Zidane.

### TALDEKIDE BAT?

Igor Zubeldia.

### ENTRENATZAILE BAT?

Beñat San Jose, Eusebio...

### AURKARI GOGOR BAT?

Marcos Llorente.

### AMETS BAT?

Realarekin titulu bat irabaztea.

### ZELAIAN, NOR DUZU ISPILU?

Xabi Prieto.

### ZURE JARRAITZAILE HANDIENAK?

Familia eta bikotekidea.

### MIRESTEN DITUZU?

Ama, aita eta anaia.

### FUTBOL ZELAI BAT?

Anoeta.

### ZERK POZTEN DIZU EGUNA? ETA GARRAZTU?

Poztu, gertukoek. Garraztu, entrenamendu edo partida txar batek.

### ZALETASUN BAT?

Tenisa.

### EMAN DIZUTEN AHOLKURIK ONENA?

Ni izateko beti.\*

ja berotzen hastean, izerdia botatzean, pentsatzen duzu: "Beste partida bat da". Eta, azkenean, ondo, esperientzia ederra izan zen. **Futbolaz hitz egin duzu, baina nolako da futbol zelaitik kanpoko Jon?**

Futbolekin bezalakoxea, nik uste. Lasaia, gehienbat. Eskuzabala ere bai, besteekin gehiago pentsatzen



Jon Guridi umetan Eivissan, Realarekin jokatuako partida baten ostean. ||| Jon Guridi

dut askotan neure buruarekin baino. Eta, besterik gabe, lagunengana laguna naiz, umila. Lotsatia [barreak]. Isila. Adibidez, debutatzean, baten bat euforiko jarriko zen agian, baina ni normalizat hartzen saiatzen naiz. Noski urduri jartzen naizela, baina barrutik eramaten saiatzen naiz. Ez zait kanpora asko azaleratzea gustatzen, pixka bat hotza naiz zentzu horretan.

**Jendeak ezagutu egingo zaitu kalean. Sinadurak, argazkiak... eskatuko dizkizute.**

**Nola daramazu hori?**

Charles Chaplin tabernan egoten naiz askotan; ume asko ibiltzen da hor inguruan, eta etorri izan zaizkit sinadura edo argazki eske. Baina, bestela, asko ez oraindik. Hasieran neu lotsatzen nintzen, baina gero ja ohitu egiten zara, eta normalizat hartzen duzu. Izan ere, zeuk ere haien adinean gauza bera egiten zenuen. Ondo daramat kontu hori, ohitu egiten zara horretara ere.

**Zu joaten al zinen norbaitengana sinadura eske?**

Ni neu egia esan, ez. Ez daukat horren oroitzapenik.

**Zer esaten dizute herritarrek?**

Lesionatuta nengoenean gehiago

hitz egiten zidaten futbolaz. Jendeak egunero horretaz galdetzen zidan, eta denei gauza bera azaltzen nien. Bestela, lagunak eta gustura daude. Pankartarekin-eta joan ziren debutera. Orain, lokalean dugu pankarta, paretan itsatsita.

**Zer dago bertan idatzita?**

"Izar bat gehiago", uste dut. Ni agertzen naizen egunkariko orriak ere han daude itsatsita [barreak]. Kuadrillako bat horrelako une batera iristea beraiantzako polita da.

**Zer esaten dizute etxean?**

Ni neu izateko, beti bezala, eta ez aldatzeko, lehengo bera naizela.

**Donostiara bizitzera joaterik ez al duzu pentsatu?**

Pentsatu izan dut, baina lagun denak-eta hemen dauzkat. Nahia-gu dut hemen bizi, gustura nago.

**Futbolarien bizimodua idealizatuta dago gizaratean, dena ona dela dirudi kanpotik begiratuta. Baina alde txarrak ere izango ditu, ezta? Presioa dela, lesioak direla...**

Ekonomikoki bai dagoela sekulako diferentzia. Gustatzen zaiguna egiten dugu, eta, bai, berez gustura bizi gara. Bakarrik, zuk nahi edo ez nahi, famatua egiten zarela. Azkenean, begi askok ikusten zaituzte;

zer egin behar duzun ere kontrolatu egin behar duzu askotan; partida txarren bat egiten baduzu, prentsan zutaz gaizki hitz egiten dute, eta ona egiten duzunean, onena izango zara. Zure izaeraren arabera, gehiago edo gutxiago eragingo dizu horrek, baina garrantzitsuena zure buruarekin konfiantza izatea da.

**Azken urteetan Azpeitiarik jokalari onak eman ditu: Mikel Aranburu, Mikel Labaka, eta, orain, zu. Presioa eragiten al dute izen horiek?**

Presioa ez, baina gogoratzen naiz azpeitiar futbolari batzuk izan direla, eta onak, gainera. Azkenean, presioa futbolekin nabaritzen dugu, baina ez horregatik. Futbolariok uste dut presioarekin bizi gairela denbora guztian, tentsioan, eta horrek ekartzen du, era berean, gure onena ematea. Ona da urduritasun puntu bat izatea, ondo kontrolatzen baldin baduzu.

**Gadeteen hasita, lehen gola nola ospatu pentsatu al duzu inoiz?**

Taldearen ikurrari musu emango niokeela uste dut, eta, gero, familiarekin, lagunekin eta neskalagunarekin oroitu nintzateke.

# Gertukoek zerdiote?

Jon Guridi hobeto ezagutu nahian, haren gertukoengana jo du Uztarriak galdezka. Guztiak daude pozik futbolari azpeitiarra lehen mailan jokatzera iritsi delako, eta onena opa diote bere ibilbidean.

**F**utboliaren amari, Igor Zubeldia Realeko jokalaria, Guridiren kuadrillako bati eta Mikel Aranburu futbolari ohiairi tokatu zaie Uztarriaren galderak erantzutea.



**MARIJE ALDALUR**  
Guridiren ama

“oso pozik nago, baina dena ez da izan polita”

“11 urterekin hasi zen Realean, eta hainbeste urte futbolean pasatu ostean, sekulako poza sentitzen dut nire semea lehen taldera iritsi dela ikusita. Emozionatuta nago. Hala ere, dena ez da izan polita, eta hori etxean bizitzen da. Garai txarrak pasatzen dira futbolean, eta asko lagundu behar da. Txikia zela deitzen zioten hara eta hona joateko esanez, baina badaezpada esan behar diozu: ‘Agian hemen bukatuko da’. Lesioa ere denontzako izan da gogorra, batez ere, berarentzako. Triste zegoenean, adibideak jartzen nizkion: ‘Begiratu Agirretxe, Canales...’. Orain ondo sentitzen da, minik gabe, eta horixe da garrantzitsuena. Esaten diot segitzeko lanean, eta iritsi beharrekoa iritsiko dela, orain arteko guztia bezala. Eta lasai hartzeko eta zaintzeko ere esaten diot. Lehen ez zi-

tzaidan gustatzen futbola, baina orain bai. Joaten naiz semearen partidak ikustera, eta deialdian badago, are gehiago. Nolako den Jon? Isila, baina mutil ona da, jatorra. Nik zer esango dut ba! Denek esaten didate aitaren berdina dela, eta nik esaten diet: ‘Hankak behintzat nireak ditu’. Izan ere, lehen korrika nahikoa ondo moldatzen nintzen [barrez]”.



**IGOR ZUBELDIA**  
Realeko jokalaria

“konfiantza handia dugu biok elkarrekin”

“Kuadrillako lagun bat bezala da niretzat Jon. Aurrez taxian-eta elkarrekin joaten ginen entrenatzerara, baina Real B taldean egin nuen berarekin harremana. Orain, denbora asko pasatzen dugu elkarrekin, baina ez gara aspertzten; konfiantza handia dugu biok elkarrekin. Nahiz eta ni azkoitiarra eta bera azpeitiarra izan, ez daukagu lehia hori. Nahikoa antzekoak gara biok, hasiera batean, behintzat. Lehen taldearekin entrenatzen hasi ginenean, pixka bat lotsatuta egoten ginen, kostatu egiten baitzaigu hasieran harremanak egitea. Baina, denborarekin, konfiantza hartu dugu taldekideekin. Futbol zelaian, berri-

ezkerra, abila eta oso ona dela esango nuke Jon. Zorte txar pixka bat izan du lesioarekin, baina orain bueltan da, eta gogotsu nago bera berri ere zelaian ikusteko. Biok erdian jokatzen dugu, eta horrek agian partidetarako deialdian eragin dezake, baina horregatik ez gara haserretuko eta lagun onak izaten jarraituko dugu. Ahal den onena opa diot bere ibilbiderako. Oraintxe dauka aukera muturra sartzeko, eta uste dut aukera hori aprobetxatuko duela. Realean elkarrekin ahalik eta urte gehien egitea izango litzateke ideala”.



**JULEN ANSOALDE**  
Guridiren kuadrillakoa

“berarekin batera ari gara gozatzen qu ere”

“Asko jarraitzen ditugu kuadrillan Guridiren partidak; azkenean, Real ikustera baino gehiago, bera ikustera joaten gara. Hark jokatzen badu, beti joaten gara Anotara. Orain arte ez ditu minutu asko jokatu, baina jokatu duenetan ondo aritu da, eta hori ez da gutxi. Agian, berak gehiago jokatzea nahiko du, baina nik uste dut entrenatzailea nahikoa konfiantza izaten ari dela berarekin. Orain, futbola dela eta, gustura egoten

gara kuadrillan bere anekdotak entzuten: Xabi Prietok ez dakit zer egin diola, edo Agirretxek... Bizitza osoan momentu honen zain egon da, eta, orain, gu berarekin batera ari gara gozatzen. Aurretik bage-nuen bere kamiseta, baina duela gutxi eman diote 23 zenbakia, eta berehala aldatu dugu denok elastikoa”.



**MIKEL ARANBURU**  
Futbolari ohia

“burua bere Lekuan dauka eta Langileak da”

“Poza ematen du beste herritar bat Realekin lehen mailara iritsi dela ikusteak. Ea orain zorte pixka bat izaten duen. Egia esan, orain arteko partidetan ondo ikusi dut. Lesioa izanda ere, Realak kontratu luzea eskaini dio, eta bera bezalako jokalaria gazte batentzat orain garrantzitsuena da ahalik eta minutu gehien jokatzea. Hasieran ez da erraza izaten minutuak lortzea, eta, gainera, beste jokalaria asko daude bere postu berdintsuan jokatzen dutenak. Baina nik uste dut bide onean dagoela. Belaunetik ondo errekupe-ratu da eta maila badu: teknikoki jokalaria ona da; fisikoki ere bai, zelaian metro asko egiteko gai baita; eta futbola oso ondo ikusten du. Horrez gain, aurkarien areara iristeko eta gol batzuk sartzeko ahalmena ere badauka. Orain izan duen bezalako lesio lutzerik ez izatea opa diot. Uste dut burua bere lekuan daukala eta langilea dela entrenatzerakoan nahiz bere burua zaintzerakoan. Ea entrenatzaileek konfiantza izaten duten berarengan eta lehen taldean lekua egiten duen”.\*



# Animalientzat produktuen gune berria Kimu Baten



Txakurkumeak hezteko ikastaroa, txakurren gaitasun erakustaldia, haurrentzako tailerrak eta txokolatada izango dira, baita %25eko beherapena ere dendako produktu guztietan.

**Z**eini ez zaio gustatzen epel egotea? Eta otordu goxoez disfrutatzea? Nork ez du osasuntsu bizi nahi? Eta ondo pasatu? Ondo bizitzea da animalia guztion desira. Horregatik, *Guztiok animalia* lelopean, gure etxeko lagun iletsu eta ezkatadunentzako produktuen gune berria, 130 metro koadroko espazioa, ezagutarazteko festa antolatu du Kimu Batek. Martxoaren 17an, larunbata, haur eta helduei zuzendutako jaialdia ospatuko da Azpeitiko enpresak Urrestilla bidean kokatutako garden-ean, eta ongi etorriak izango dira etxeko laguntxoak.

Egun horretan bertaraten direnek %25eko beherapena izango dute animalien txokoko produktu orotan. Gainera, ekitaldi anitzez gozatzeko aukera izango da. Goizeko 11:00etan, txakurkumeen heziketari buruzko gakoak eta teknikak eskainiko dituzte Ingravity Dreams enpresako Iñaki Carretero eta Vicente Martinez hizlariak, ordu eta erdiko saioan. Carretero eta Martinez adituak dira animalien osasun arloan. Gure laguntxoak osasuntsu mantentzeko fisioterapia, hidroterapia eta akupuntura teknikak erabiltzen dituzte, eta elikagai naturalen inguruan adituak dira.

Bazkalondoan, txakurren trebetasun erakustaldia gauzatuko da Kimu Baten kanpo instalazioetan, 15:30ean. Zakurrak osasuntsu mantentzeko ariketa fisikoekin garatzen diren estimulu kognitiboan garrantzia azpimarratzen da horrelako ekimenetan.

Ondoren, 17:00etatik aurrera, haurrentzako tailer eta jolasak izango dira, anima-



lien gaiari lotuta. Eta festa zapore ezin hobekin amaitzeko, txokolatada ederra dartzeko aukera izango da.

Kimu Bat gardenera hurbiltzen direnek animalien elikadurarekin, zainketaekin, konfortarekin eta garbitasunarekin loturiko produktuen eskaintza zabala topatuko dute: kalitatezko elikagaiak, pentsuak, haziak, arropa eta osagarriak, etxetoak, jostailuak, kuxin eta oheak, hortz eta gorputz garbitasunerako tresnak, eta abar.

## 27 urte erronkaz erronka

Kimu Baten ibilbidea duela 27 urte hasi zen, paisajismoaren eta lorezaintzaren munduan. Enpresa horrek hasieratik izan duen izaera kooperatiboari helduz, duela urte batzuk lan-sozietate bilakatzea erabaki zuten. Ingurumena eta paisaia zaintzeko proiektuak garatu eta eragile anitzekin elkarlana sustatzen du Kimu Bateko lantaldeak. Lorezaintzarekin eta paisaiarekin loturiko proiektuez gain, baratzegintzaren arloan eskarmentu handia dute, baita ureztatze sistema, igerileku natural eta fitoazatzeka puztuen garapenean ere.



Urrestilla bidean dagoen garden-a 2016an inauguratu zuten, guztiz eraberrituta, eta bertan lorezaintzarako, baratzerako eta lorategi nahiz terrazen dekoraziorako produktuen eskaintza zabala dago. Gainera, espazio berezia dute gertuko ekoizleek landutako artisauek elikagaiak. Orain, berriz, hedatu egin dute dendaren azalera, animalientzako eskaintza barneratuz.

# Errotak erdoilik ez

Igarako ur errotak oraindik ere ehotzen du alea tartean behin. Haren mantenuaz Luis Mari Arregi arduratzen da. Errotaria gustura dago lanarekin. 📝📞 Ainitze Agirrezabala

**L**urdes Iriondoren eta Xabier Leteren *Errota zahar maitea* abestian jasozten diren hitzak ondo egokitzen zaizkio Loiola auzoan dagoen Igarako errotari. Zaharra baita, eta maitea ere bai. Ez du garai batean bezala jesuitentzat edo baserritarrentzat alea xehetzen, baina noizean behin martxan jartzen du errotaria, museoa ikustera joandako bisitariari bere jarduna erakusteko. Igarako errotaren mantenuaz eta ate irekiak edo bisitak direnean hura martxan jartzeaz Loiolako Etxearreta baserriko Luis Mari Arregi (Loiola, Azpeitia, 1963) arduratzen da, duela bi urtetatik. Errotara irteerak antolatzen eta jardunaldiak azalpenak ematen, berriz, Azpeitiko Ekoetxeako Itziar Unanue, Ana Arruti eta Eburne Agirre hezitzaileak aritzen dira.

Loiolako Sistiaga errekaaren ondoan dagoen Igarako ur errota XVII. mende bukaerakoa da. Irina lortzeko, uraren indarra baliatuz artoa edo garia ehotzen ia lau mendez aritu da bertako errotaria gogotik lanean. Azpeitiko Ekoetxeako langile Itziar Unanueren esanetan, jesuiten garaikoa da Igarako errota. "Mezatan jauna hartzerakoan apaizak banatzen dituen ostiak egiteko erabiltzen zen garai batean. Forma haiek hasieran gari-irinarekin egiten zituzten, baina Espainiako Gerran, gariaren eskasia zela eta, arroz-irinarekin egiten hasi ziren". Igarako errota xehetzen zen irina beste erroretan ehotzen zena baino "zuriagoa eta kalitatez hobea" zen, ehotzeko orduan

## Uraren eguna

||| **Uraren Munduko Eguna da hil honen 22an, eta horren harira, Ingurugiro Etxeak eta Udalak hainbat jardunaldi antolatu dituzte. Batetik, Aste Santua denez, Loiolako errota ate irekien saioak izango dira martxoaren 29an, 30ean, 31n eta apirilaren 1ean eta 2an. Errota ikusi nahi dutenek aipatutako egunetan bertara agertzea besterik ez dute, eta sarrera doakoa izango da. Bisita gidatu horiek zer ordutan izango diren aurrerago zehaztuko du Ekoetxeak. Bestalde, hilaren 18an, uraren inguruko tailerra eskainiko du Artelatz enpresak Ekoetxean. Saioa LH 3. mailatik DBH 2. mailara arteko ikasleentzat izango da. Tailerrean parte hartu nahi dutenek aurrez eman behar dute izena, Ekoetxeara deituta: 943 81 24 48.\***

azala banandu egiten zutelako. Igarako errota jesuitek ustiatzen bazuten ere, geroago esku pribatuera pasatu zen.

Urte askotan itxita egon ondoren, 2000. urtean eraberritu egin zuen Azpeitiko Udalak, eta gaur egun Ekoetxearen –lehen Ingurugiro Etxea– eskaintzaren barnean dago. Hala, ikastetxeek, taldeek nahiz elkarteek antzinako errota funtzionamendua ezagutzeko aukera dute. Gainera, urtean zehar Igarako errota

ra ate irekiak ere antolatzen ditu Ekoetxeak, hango jarduna bertatik bertara ezagutzeko interesa duen edonork bisita dezan.

## Azken errotariak

Etxearretako aitona eta aita zirenek baserrian zuten garia Igarako errota xehetzeraz eramaten zutela eta, etxean pasadizo ugari entzundakoa dela dio Agirrek. Gaur egungo Igarako errota errota adierazi du aita zena-eta beti entzun izan zituela errota inguruan hitz egiten. "Beraien istorioak zituzten. Nik geldirik ezagutu nuen errota urte mordoan. Eraikinak atzealdean zulo handi bat zuen, eta gu, mutil kozkorrak, handik begira egoten ginen. Barua, ordea, botila hutsez beteta egoten zen, eta ez genuen ikusten errota. 'Zer da errota?' galdetzen genuen etxean".

Baserritik mundutik bizi da Arregi, baratzea lantzetik, hain zuzen ere, eta duela bi urtetatik errota ere bada. "Lehen arduraduna, Xabier Garate –Loiolako Igar baserrikoa– hil zenean proposatu zidaten niri. Loiolatarra naiz, hemengo berri badakit, eta baratzean lanean ari nintzen batean udaleko zinegotzi Aitor Bereziartua etorri zitzaidan baserrira. Lehen ez nuen nahikoa lan etxean, eta beste bat gehiago hartu nuen! Baina, egia esan, poz eman zidan nirekin gogoratu izanak, ez nuen eta halakorik espero. Eta zer esango dizut, ba, gustura nago eginkizun honekin".

Agirre errota mantenuaz arduratzen



Luis Mari Arregi errotaria eta haren seme Aitor Igarako errotarria pikatzen. ||| Aintze Agirrezabala

denez, zereginik ez zaio falta, eta azken al-dian, gainera, Aitor semearen laguntza ere badu. “Beti dago hemen zer egina, eta semea lanik gabe dagoenez, biok aritzen gara mantenu lana egiten: ubidea garbitu, errota atzean sasi-garbitzeko makina pasatu... Une honetan, esaterako, errotarriaren burdin batek milimetro batzuetako lasaiera du, eta guztia desmuntatu eta zuzentzen ari gara. Bide batez, errotarria pikatzen ari gara, alea hobeto xehetu dezan eta irina are eta finagoa ater dadin”.

Bisita gidatuetan “azalpen askorik ez” duela ematen aitortu du Arregik. “Horretaz Ekoetxeako hezitzaileak arduratzen dira. Haiek aurrez abisatzen didate bisita gidatua zer egunetan den, eta nik ordurako lan guztiak zintzo egiten ditut. Eskola umeez gain, herriko gero eta familia gehiago animatzen da errota bisitatzea. Inoiz errota ikusi gabeak dira, eta hemen, Loiolan, errota bazenik ere ez dakitenak”.

### Errota hiru zatitan

Igarako errota ezagutzeko bisitak ordu erdi inguru irauten du Ekoetxeako hezitzaile Unanuek aurreratu duenez, eta “aproposa da oso” garai bateko jarduna ezagutzeko; uraren

indarra aprobetxatuz garia edo artoa ehotzi eta irina nola lortzen den ikusteko, alegia. Bisitak hiru zati ditu, eta errotaren gainaldean dagoen antapara deritzon ur-deposituan hasten dute saioa. Aurretik, ordea, marrazkiak ardatz dituen argibide-taula baten bidez azalpen labor bat ematen die gidariak bisitarietara. Sistiloa errekaen ur-emia kanal baten bidez errotaren goiko aldean dagoen deposituan biltzen da. Antapara horrek bidetxo bat dauka, deposituak gainezka egingo balu ere uraren maila erregulatzeko.


Gero, bisitariak errotaren behealdera jaisten dira, hango ur-turbinaren funtzionamendua ezagutzeko. Errotariak deposituko ura askatzen duenean, presio handiarekin erortzen da ura, eta turbinan dagoen gurpilaren palak izugarrizko indarrarekin kolpekatzen ditu. Ondorioz, gurpila oso bizkor biratzen hasten da, eta sortzen duen errotazio mugimenduak goiko harria birarazten du, bi elementuak ardatz baten bidez elkartuta daudelako.

Bisita errotaren barruan amaitzen da, bi harriren arteko higadurari esker gari edo arto alearen ehotzetik irina nola eskuratzen den ikusita. Izan ere, errotariak errota martxan jarri ondoren, tobera deritzon edukiontzi batera alea botatzen du. Apurka-apurka, bi

errotarriren artera alea erortzen da, eta bi harriren arteko marruskadurari esker xehetu egiten da. Alea ehotzen joan ahala, irina poliki-poliki errotariak prestatutako kutxa batera erortzen da. Sistema mekaniko baten bidez, errotariak erregulatzen ditu harriaren biratze eta xehetze abiadurak eta irinaren kalitatea edo lodiera.

Urte hauetan guztietan, hamaika bisita gidatu eskaini dituzte Ekoetxeako hiru hezitzaileek, eta naturako fenomeno desberdinak kontrolatu ezinak, pasadizo bat baino gehiago utzi die. Unanuek kontatu duenez, Sistiaga erreka urarekin batera ekartzen duen lokatza errotako deposituan pilatzen bada, ubidea oztopatzen du, eta, ondorioz, ezin izaten da errota martxan jarri. Hain zuzen ere, Azkoitiko Xabier Munibe Ikastolako ikasle talde bat bisitan etorri zitzaizen batean, ezin izan zuten errota martxan jarri lokatza asko pilatuta zegoelako deposituan. Arazo hori sahisteko, gaur egun depositua zabalik uzten dute, urak bere bidea egin dezan eta antaparan lokatza pilatu ez dedin. Agirrek bere aldeetik dio bi urteotan ez duela bitxikeriarik izan. “Beno, behin, errotako turbinara jaisteko eskaileretan suge gorri bat agertu zen, eta ume guztiak garrasika hasi ziren”.\*

# Planto, eta gauza gehiago

Lanuzteak deitu ditu mugimendu feministak aurten martxoaren 8rako, baina horien bueltan beste zenbait ekitaldi ere prestatu dituzte. Azpeitian ere prest dute egitaraua.  Mailo Oiarzabal

**M**artxoaren 8a berrikuntza aipagarriarekin dator aurten. Emakumeen Nazioarteko Egunean greba feministara deituta daude emakumeak hainbat herrialdetan. Euskal Herriko Mugimendu Feministak ere bat egin du deialdiarekin eta lanuzteak deitu ditu egun horretarako, "indarkeria matxistari, esplotazioari eta diskriminazioari nahikoa dela esateko", *Emakumeok\* planto!* leloarekin.

Urola Kostan egitarau bateratua aurkeztu dute, Urola Kostako Koordinadora Feministaren eskutik. Eskualde mailako ekitaldia Zumaian egingo dute, hilaren 4an. Baina, horrez gain, herri bakoitzean beren egitarauak garatuko dituzte, baita Azpeitian ere.

## Hainbat ekitaldi aukeran

Aurtengo egitasmo nagusia lanuzteekin lotuta datorrenez, emakumeek egun osoz, egun erdiz edo orduzka beren eginzkizunetan planto egitea eta horren gizarte eragina bistaratzeari izango da martxoaren 8ko helburu nagusia, baina horren bueltan egitarau zabalagoa prestatu dute herrian.

Martxoaren 7an estreinatuko dute egitaraua, mural margoketarekin. Martxoaren 8an, berriz, lehen hitzordua 12:00etan jarri dute, plazan, mosaiko bat osatzeko; ondoren, luntxa izango da.

## DATUAK

||| **Zer.** Martxoaren 8aren bueltako egitaraua.  
||| **Egunak.** Martxoak 7, 8 eta 9 (asteazkena, osteguna eta ostirala).  
||| **Tokiak.** Herriko hainbat gunetan.  
||| **Antolatzailea.** Mugimendu Feminista.

17:00etan, hitzaldia emango du Xabier Pajuelok Emakumeen Txokoan, eta 18:30ean izango da elkarretaratzea plazan; ondoren, Donostiako mobilizazioetara joateko autobusa egongo da.

Martxoaren 9an, berriz, Gazteak hartuko du lekukoa. 18:30ean *Gizonak eta feminismoa* hitzaldia emango du Jokin Azpiatzuk, 20:30ean jantoki vegetarianoa izango dute, eta Olor taldearen kontzertua, ondoren.

## HITZORDUAK

**3** egun. Martxoaren 7an, 8an eta 9an izango dira ekitaldiak.

**2** hitzaldi. Transexualitatea eta gizonek feminismoarekiko duten rola hizpide izango dituzte Xabier Pajuelok eta Jokin Azpiatzuk.\*



Aurtengo karteletako bat. ||| Euskal Herriko Mugimendu Feminista

## BESTERIK

## 1 Bertsio Gaua Gaztetxean

Aurten ere antolatu dute Gaztetxean Bertsio Gaua, "ondo pasatzea nahi duen edonork" parte hartzera animatuta.

||| **Eguna.** Martxoaren 10a (zapatua). ||| **Ordua.** 21:00

||| **Tokia.** Gaztetxea.

||| **Antolatzailea.** Azpeitiko Gaztetxea.

## 2 IX. Erriarraitz Txapelketa

Martxoan bi hitzordu dituzte bertsozaleek IX. Erriarraitz Txapelketarekin. Hilaren 4an azken kanporaketa jokatu da Zestoan, eta 16an finala, Azpeitian.

||| **Eguna.** Martxoaren 16a (ostirala). ||| **Ordua.** 21:00

||| **Tokia.** Gaztetxea.

||| **Antolatzailea.** Erriarraitz.

## 3 Atom Rhumba eta La M.O.D.A.

Bi talde horiek joko dute Sanagustinen martxoan.

||| **Eguna.** Martxoaren 10a eta 24a (zapatuak, biak). ||| **Ordua.** 23:00

||| **Tokia.** Sanagustin kulturunea. ||| **Antolatzailea.** Kulturaz kooperatiba.\*

||| Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: [uztarria.eus/agenda](http://uztarria.eus/agenda)



# Pentsioak eta beste duintasunak

**Z**aila da on egitearen kontra egotea. Oso zaila, borondatez egindakoaren juzku ez oso positiboak egitea. Askoz ere zailagoa, juzku horiek jendaurrean adieraztea. Borondate onez, kalte asmorik gabe ibili badira, zer dauka inork zer esanik? Utzi bada bakean bazterrei, isildu eta segi bakoitzak geurera!

Ezin dut isildu. Ezin naiz isilik egon, etorkizuna ikusten baitut gero eta beltzagoa, hurbilagoa, umilgarriagoa. Ulegarria da norberari gustatzen zaion hura egiteko aukerez baliatzea, kantua maite duenari kantatzea, antzerkia maite duenari antzeztea, dantza gustatzen zaionari dantzan egitea eta pailazoarena egitea pailazokeriak gustatzen zaizkionari.

Zaharra naiz eta zaharragora noa egundo ahalako abiadan. Nire azkenak irudikatzen hasten naizenean, ikarak itotzen ditu nire gorputz eta gogoak. Azpeitiko San Martin egoitzan edo zerbitzu publikoek, ordurako galdu ez badira, egotzitako egoitzaren batean ikusten ditut nire hezurak eta mamiak. Agure baina kapaza, zahar baina gai, motel baina adimenarekin (eta pentsio duin batekin, erantsiko luke aldarrizaleak). Dena nahi dut. Irudipen honen araberaok balira ondo legoke nirea. Sansebastianetan, karnabaletan, eguberrietan, santotomasetan, saninazioetan... eta gizakiaren zorionerako asmatutako festa aitzakia guztietan ez dudala nahi, ez dudala atsegin, ez dudala behar, bakea besterik ez dudala behar eta uzteko niri. Ezetz esateko gaitasuna izango nuke eta nire gelara edo bakea legokeen beste inora irakurtzera joaten ikusten dut neure burua, edo atarira edo jardinera irteten, kontu kontari bezala isiltasunean edo ikusmiran egotera.

## Ez nuke nahi

Ez nuke nahi, inondik inora, gogoko ez nukeen bertso saio batera eramana ikustea neure burua. Ez nuke egon nahi borondate onez kantatu arren, beren etxeokok eta lagunak,



|||||||ramon etxezarreta|||


|||Nire azkenak irudikatzen hasten naizenean, ikarak itortzen ditu nire gorputz eta gogoak

gutxiago publiko zabalak, entzun nahi ez dituen kantari, musika-jotzaile eta gainerako pertsonaia sinpatikoak entzutera eta ikustera derrigortua izatea. Ez nuke egon nahi zahar jendea ume inozotzat hartuz aktuazioak egiten dituen jendearena ikustera umiliatutako beste zaharrekin tristura aireak arnasten. Ez nuke, ia inoiz mozorrotu ez naizen honek, giralnaz, kapela txinatarrez, bikingo adarrez edo beste inolaz mozorrotua izaterik nahi, salbu eta hala egitea espreski eskatuko ez banu.

Eta ez nuke nahi, debekatua egon behar luke, argazki publiko higuinarririk. Ongile eta profesional horiek ez al dute ikusten alaitasuna ordez tristezia besterik ez dela ikusten beren jardun horretaratutako izakien aurpegietan. Ez al dira jabetzen, argazkietako horiek, pentsio duinik gabe ere, duintasuna bere osotasunean dutela eta horrek intimitatea eta ezin gehiagoko begirunea esan nahi dituela?\*



## HITZ GEZIDUNAK

	Izena	Onetsi	Oso haserre	Gustukoak	Naizen honek
	Deitura	Zurgin-degia	Biguna	Musika nota	
	Araudi				
	Zuhaitzak				
Arroparik gabe	Alkandora			Fikaren erdian	
Ziliportak	Irristailua			Zuberoako herrixka	
					Emakume izena
Euskal sindikatua		Errep., ergel		Gauerokoa	
Egile		Renioa		Galdetzaille bat	
			Zangoaren zati		
			India		
Debekurik gabe				Argizari	
Zangoaren zatia				Musika nota	
		Asiako estatua			Kontso-nantea
		Bokal biribila			Kontso-nantea
Su armetako katua			Inbutua		



Egilea:  
Luma

\* Erromeriazale azpeitiarra

## SUDOKUA

		1						7
	2			8	7	4		
	4							5
			9		1	3	5	
	3						7	
	1	6	4		3			
4								8
		7	5	9				3
3						5		



ETXERA ERAMANGO DELAGU


11  
Partigiano

DENDA BERRIA

SALBE 23, BEHEA Tel: 943 08 09 13

### |||UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK|||||

|||JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Martxoak 27 (asteazkena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara |||IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jergoglifikoen irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.



### |||LEHIAKETAREN ERANTZUNAK|||||

**1** BOTERETSUA DA

**2** DORA


||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

#### |||SOLUZIOAK|||||

HITZ GEZIDUNAK

A	L	I	N	O	•	A	O	K	A	K	•
N	•	A	I	D	N	I	•	A	N	I	O
O	K	Z	E	•	I	G	E	L	I	Z	•
L	A	T	Z	A	•	E	R	O	T	U	A
A	O	L	•	N	U	T	•	B	A	L	•
•	K	A	N	I	T	Z	I	R	P	Z	•
K	•	A	R	A	R	O	R	A	•	B	•
I	G	E	T	U	A	A	R	A	•		
N	E	R	E	U	G	N	A	R	A		
•	B	•	S	•	O	•	I	•			



SUDOKUA

6	4	5	8	1	7	2	9	3
2	3	9	4	9	5	7	8	1
1	8	7	6	3	2	6	5	4
8	2	9	3	4	7	4	6	5
9	2	6	1	7	6	9	3	4
4	7	8	9	6	1	3	5	4
7	4	3	6	2	9	8	1	5
6	2	5	1	8	7	4	9	3
8	9	1	3	4	5	2	6	7

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

**1** Birusa **2** Gainezka

#### |||UZTARRIAREN OTSAILEKO LEHIAKETA|||||

IRABAZLEA



Joxemari Fernandez Uztarria Komunikazio Taldeako bazkidea da aldizkariko 202. lehiaketaren irabazlea. Kutxillourdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.



**Urdalazplikoak, hestebeteak eta gaztak**

Etxeko berezitasuna:  
**Ezkur urdalazpliko Iberikoa**

Eñaut: 656 79 14 19  
Oier: 618 24 01 73  
kutxillo@gmail.com  
Damao Azkue 6



## BIDEOA



## ▲ MIKROUHINAK, SAREAN.

Elkarlanetik sortu da beste proiektu berri bat. Uztarria Komunikazio Taldeak, Urola Kostako Hitzak eta Kulturaz kooperatibak 'Mikrouhinak' izeneko proiektua jarri dute martxan. Hiru eragileek elkarlanean hainbat bideo egingo dute aurrerantzean, eta horiek sarean izango dira ikusgai. Lan asko kulturari lotutako emanaldietan hartutako irudiekin-eta osatuko dituzte, baina izango da bestelakorik; izan ere, herrian egiten diren ekitaldiei lotutako elkarrizketak eta erreportajeak ere egingo dituzte. Urte hasieran hasi ziren Uztarria, Hitzak eta Kulturaz proiektua lantzen, eta otsailarekin iritsi zen aurreneko bideoa; hain zuzen ere, lehen ikus-entzunezkoa Udal Musika Bandak eta Julian Barrenetxea abesbatzak Karnabalen atarian Sanagustin kulturgunean eman zuten kontzertuko irudiekin osatutakoa izan zen. Haren ostean sareratu dira bideo gehiago, hala nola Gora Herria musika taldearen emanaldiko irudiekin egindakoa. Bi bideo horien atzetik etorri dira Pupu eta Loreren ikuskizunari lotutako ikus-entzunezkoa eta Aurora & Betrayers musika taldearen irudiekin egindakoa. Datozen asteetan eta hilabeteetan ere argitaratuko dituzte 'Mikrouhinak' izeneko bideoak.

## EFEMERIDEAK

1716

**Sagardo txarra.** Kexa ugari jaso zuen Udalak unean saltzen zen sagardo upelak 26 egunetik gora zeramatzalako salgai eta, beraz, edaria txarra zelako.

1892

**Behartsuentzat lana.** Herriko behartsuenek lana izan zezaten, pilotalekuko jardineko eta Amuko zubitik Iturriagatxo baserrira arteko obrak hastea erabaki zuen Udalak.

1988

**Iñaki Azpiazu zendu zen.** Iñaki Azpiazu hil zen, Buenos Aires hiriko klinika batean.

2001

**Lehergailua, epaitegian.** Lehergailu batek eztanda egin zuen epaitegiko ate aurrean, 22:35ean.

📌 **Iturria:** Azpeticiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

|| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

|| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.\*

**KIMU BAT GARDEN**

**Animaliontzako denda berria**

**17 Martxo**  
inaugurazio festa!

**25% deskontua**  
produktu guztietan

**11:00** Txakurkumeak hezteko ikastaroa  
**15:30** Txakurren trebetasun erakustaldia  
**17:00** Haurrentzako tailerrak eta txokolatada

**Gure etxeko lagun lietsu, lumadun eta ezkatadunenizako eskaintza zabala!**  
Urrestilla bidea, z/g - AZPEITIA



# Janari soberakinak

## ENEKO CANTERO eskalada irakaslea

**I**maginatzten dut denok dakigula janaria zaborretara botatzea oso gaizki dagoela. Alde batetik, munduan milioika pertsona gosez bizi eta beste milioika pertsona gehiegi janda oheratzen direlako. Tristea da benetan gure mundu honetan gertatzen ari dena, eta badakit gehiengo gaizki sentiarazten gaituela gai honek. Dena den, egia da zaborrontziak janariz beteta ikusten ditugunean, ez gara oso kontziente egiten dugunarekin. Zaborrontziak janariz bete! Bai janariz betetzen ditugu! Zimeldu zaizkigun frutekin eta barazkiekin, egun batzuk hozkailuan igaro dituzten janari hondarrekin... Eta eskola atarietan, lurrean, ikusten diren ogitartekoak... Denoi gertatu zaigu inoiz edo askotan horrelako zerbait, eta ezin uka bekaturia denik. Janaria botatzea oker handia dela entzun izan dut nik beti etxean!

Erosketak ondo kudeatzean dago gakoa, edo hala iruditzen zait niri, behintzat. Behar diren errazioak prestatu, soberakinak berrerabili edo izoztu eta jan behar dena planifikatu. Helburua izan behar luke elikagaiak kontzienteago kudeatzea. Gosez bizi diren milioika pertsona horien sabelak ezin izango ditugu bete, baina behar bada... lagun diezaiekegu.

Janariak zaborretan ez du inor elikatzen!\*



aitziber aizpuru



- 1. Zer transmititu nahi duzu eskoletan?**  
Umeengan afizioa sortzea.
- 2. Zenbat da teknika, eta zenbat indarra?**  
Garrantzitsuagoa da teknika.
- 3. Soka hautsiz gero?**  
Larri.

- 4. Behera so egitean?**  
Lehen aldiz erori arte, izua.
- 5. Ez erortzeko gakoa?**  
Ondo aseguratzeko, eta, txarrean, erortzen jakitea.
- 9. Umeek ala helduek egiten dute hobeto?**  
14 eta 24 urte arteko gaizteetan dago garapena.

- 9. Zer da zuzentzat eskalada?**  
Bizitzak eman didan gauzarik onena. Eskalada nire bizitza da.
- 10. Eskalatu duzun lekurik ikusgarriena?**  
Kalimnos irla, Grezian.\*  
Ane Olaizola

**Xabier** margoak

**Pinturak eta Parket Laminatuak**

Pablo VI, 20 - Tel: 943 15 73 25 - www.xabiermargoak.com

**IRENE ALTUNA** LOIAGENDA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87  
www.ialtiagenda.com

**Alar** merzeria

Loiolako Anzulo Hiribidea, 3  
Tel: 688 81 87 78

**Koh Tao**

OSAGARRIAK

Fari Irribidea, 3 • Tel: 609 688 193  
20730 AZPEITIA (Gibuzkoa)

**uba** SERVICIOS

Ahoakularia  
Tisulak  
Jokalaritza  
Luzabildu

Gestioari jarraitu

Finkak administrazioak  
Gestio inmobiliarioak

Tel: 943 151 229 Fax: 943 152 229  
Euzkoan Kalea, 18 • 48901 ARKOTE (Bizkaia)

**KIRURI**

**JATETXEA**

Loiola hiribidea, 24

**LOIOLA - AZPEITIA**

Tfn: 943 81 66 88  
Fax: 943 15 03 62

**adi** ARTE ETA DISEINU ESKOLA BUKARTEA

**Marraskia eta eskulanak** (haurrak) 17:15 - 18:30

**Pintura** 15:30 - 17:00 (helduak) 18:30 - 20:30

**Tallak** 18:30 - 20:00

Jose Arretxe kalea, 3  
943 81 28 08  
artebizinesua@gmail.com  
Matrikula urte osoan zeharrik

**ostadar optika**

DITORAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Arretxe, 17  
Tel: 943-810654  
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28  
Tel: 943-850445  
AZKOITIA

# Diegoren itzalpean

Mende laurdena beteko du Azkoitia-Azpeitia maratoi erdiak hilaren 24ko edizioarekin. Antolatzaileen taldean badira hasieratik ari direnak. 📌 Mailo Oiarzabal

**I**a 40 urte dira Azpeitian lehen aldiz maratoi erdi bat egin zela. 1979an antolatu zuten lehen aldiz maratoia Donostian. “Hura boom bat izan zen eta hemen denak korrika hasi ziren”, gogoratu du Fernando Berziartua *Pikuak* (Azpeitia, 1950). “Gaur adina atletismo kulturarik ez” egon arren, herrietan distantzia luzeko lasterketak antolatzen hasi ziren, baita Azpeitian ere. Pikuua bera tartean zen kuadrilla batek erabaki zuen maratoi erdia antolatzea Jai Karnabalerako, eta erantzuna ez zen makala izan: 700-800 inguru korrikalarik parte hartu zuten lehen lasterketa hartan. “Akordatzen naiz, gainera, ikastolatik 70 ume etorri zirela korrika egitera; a ze astakeria!”, dio, gaur egungo begiekin ikusita. Bizpahiru urtetan egin zuten maratoi erdia karnabaletan hasierako kuadrillak antolatuta; eta beste horrenbeste urtez, lekukoa hartu zuten Zokoa soziedadekoek antolatuta. Maratoi erdi haietan parte hartu zutenetako bat da Mitxel Iriarte (Azpeitia, 1965). “Maratoi erdia egin, etxera joan, dutxatu eta txikiteora”, izaten zen Iriarteren plana.

Gerora umeentzako lasterketak-eta egiten jarraitu zuten karnabaletan, baina atzean gelditu zen maratoi erdia. 1990eko hamarkadan, ordea, Mitxel eta Josu Iriarte (Azpeitia, 1969) anaiak eta beste lagun batzuk hasi ziren distantzia luzeko lasterketa herriko bat martxan jartzeko asmoa lantzen. “Ideia zen lasterketa herriko bat antolatzea Azpeitian,

lehen egon zen bezala, eta herri denetan zegoen bezala”, kontatu du Josu Iriartek. Zeukaten asmoa azaldu zioten Diego Garciari, eta “egundoko plana” iruditu zitzaion Azpeitian bizi zen goi-mailako atleta azkoitiarrari. 1992a zen, Garciak Bartzelonako Joko Olimpikoetako maratoia bederatzigarren postuan bukatu zuen urtea, eta Fukuokan (Japonia) 42 kilometrotako lasterketan Espainiako marka ezarri zuen urte bera. Handik bi urtera, 1994an, Garciak Europako Atletismo Txapelketetako maratoian zilarrezko domina irabazi zuen urtean, egin zen lehen aldiz Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia.

Hutsetik hasi ziren, beraz, aurten 25. edizioa beteko duen lasterketa antolatzen. Be-

## ‘Animal’?

||| **Urte luzeotako bizipenek utzitako hamaika pasarte dituzte gogoan antolatzaileek, eta horietako bat da lehen edizioaren irabazlearekin lotutakoa. William Musyoki keniarra garaile iritsi zen helmugara, baina ez pozik, “haserre eta erdi negarrez” baizik, Pikuak kontatu duenez. “Itzultzailea etorri zitzaigun zer gertatu zen galdezka, jendeak behin eta berriz ‘animal’ esan ziola kexu zela. Eta guk, ez zela ezertxo ere gertatu: ikusleek ‘animo’ esaten ziotela, eta ez ‘animal’. Besarkatzera etorri zitzaigun, orduan”.**

deratzi bat laguneko talde egonkorra osatu zuten, Diego Garcia bera ere tartean zela, eta Zaletu Taldea izena hartu zuten. Horieta-ko batzuek bazuten esperientzia garai bateko maratoi erdiaren antolakuntzatik, baina dena zegoen egiteko. Lau dira hasierako talde hartatik gaur arte taldean jarraitzen dutenak, eta horietako hiru dira Pikuua eta Iriarte anaiak. Eta hirurek azpimarratzen dute, behin eta berriz, herritarren eta herriko merkatariei, ostalari eta erakundeentzako laguntza “ezinbestekoa” dela eta izan dela urte guztietan maratoi erdia antolatu ahal izateko. “Dirua lortzea zaila da, eta laguntza lortzea ere bai. Nik horregatik baloratzen dut hemen dagoena”, dio, eskertuta, Pikuak. Izan ere, herriko jende askoren inplikaziorik eta musu truk emandako laguntzarik gabe zaila litzateke lasterketak irautea. “Azpeitian bakarrik, 120 lagun inguru” mugitzen ditu urtero maratoi erdiak lanerako, Josu Iriarteren esanetan. “Azkenean, guztiok gara hemen Zaletu Taldea”, gaineratu du, jendearen laguntzaren garrantzia azpimarratzeko. Etxekoak, lagunak, hainbat soziedadetako kideak... Askok dira urteak joan eta urteak etorri Azpeitia-Azkoitia lasterketa posible egin eta egiten dutenak. Eta “aipamen berezi” bat: Loiola Hotela, “gure etxea”.

Antolakuntzan ere batzuk uzten eta beste batzuk sartzen joan dira. Fernando *Pikuak*, esaterako, aurtengoa azken urtea izango duela aurreratu du. Eta, iriartetarrek bezala,



Inpernu elkartean antolatzaileak eta atletak. Goian, hasierako urteetan; behean, 2016an.

“jende berria” inguratzea beharrezkoa dela dio, lasterketari eusten jarraitzeko.

### “Kristoren kolpea”

Baina Azkoitia-Azpeitia maratoi erdiaren historian norbait giltzarria izan bada, hori da Diego Garcia. Azkoitiarra atletismoaren elite-

an zebilela eman zituen lehen pausoak lasterketak, eta haren inplikazioak eta itzalak pisu “eztaba daezina” izan zuten maratoi erdiaren antolakuntzan eta zabalkundeetan. “Hark ate asko ireki dizkigu, haren kontaktuek bidea asko erraztu ziguten”, aitortu du Pikuak. Garciairen babesle zen Adidasek goi-mailako

atletak ekartzen zituen lehiatzera, eta Garcia beraren atleta lagunak ere beti etortzen ziren. “La dirurik kostatu gabe, kristoren maratoi erdia ateratzen zitzaigun”, dio Mitxel Iriartek.

2011ko martxoaren 31n, ezusteko latzak kolpatu zituen maratoi erdiaren antolatzaileak eta Azpeitiko eta Azkoitiko herriak. VIII. Azkoitia-Azpeitiaren bezperan, entrenatzen ari zela, Loiolan, bihotzak huts egin eta hil egin zen Diego Garcia. Iriarte anaien eta Pikuak, beste askok bezala, ondo gogoan dute non, noiz eta nola izan zuten Garciairen heriotzaren berri, eta ondorengo ordu eta egunetako emozioen zurrumbiloa. “Kristoren kolpea” izan zela diote, aho batez. Maratoi erdiaren arima zenaren kolpeko heriotzari aurre egitea gutxi ez, eta hurrengo egunean bertan lasterketa, eta hileta ere bai. Loiola Hotelean elkartu ziren Garciairen antolakuntzako kideak arratsaldean, zer egin erabakitzeko. “Diegok nahiago izango zian egitea, ez egitea baino”, esan genion elkarri, eta erabaki genuen egingo genuela”, dio Mitxel Iriartek. “Egun hartan lasterketarik egin izan ez balitz, seguruenek ez litzakete gehiago antolatu izango. Pentsatzen dut laga egingo zela, eta behin lagatzen dituzun gauzak zailak dira gero berriro hartzen”.

Eta Garciairik gabe, baina Garciairekin, aurrera egin zuen probak. 2012tik aurrera, Diego Garciairen Oroimenezkoa ere bada maratoi erdia. Haren prestatzailea zen Santi Perezek hartu zuen azkoitiarrak antolatza-kuntzan utzitako hutsunea, eta Garciairen atletismo munduko lagunak urtero hartzen dute parte, era batean edo bestean, Azkoitia-Azpeitia lasterketan.

Fernando Pikuak eta Iriarte anaien ere ez dute saltzeko lagunaren oroimena. “Herrikoia”, “oso tipo ona”, “gertukoa”, “artista bat”... Hitz onak besterik ez dituzte Garciairentzat, eta hari buruz hitz egiterakoan “Diego da” ateratzen zaie oraindik sarri, maratoi erdiaren antolakuntzaren kuartel nagusia den Inpernu soziedadean elkarrekin egingako dozenaka afari-bilerak eta momentu onak gogoan.\*

OBRA ZUZENDARITZA ETA GREMIOEN KOORDINAZIOA  
AURREKONTUAK ETA OBRA NEURKETAK  
IREKIERA ETA JARDUERA BAIMENAK  
ERAIKINEN IKUSKATZE TEKNIKO (ITE)

**JON ESNAOLA**  
ARQUITECTO TÉCNICO  
M: (+34) 647 654 506  
T: (+34) 943 15 7000  
E: info@jonesnaola.es  
www.jonesnaola.es

## TELEFONO ZENBAKIAK

### TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01

### LARRIALDIAK

# 112

### ODOL-EMAILEAK

Martxoaren 28an izango dute hitzordua, 17:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
<b>SINDIKATUAK</b>	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

### OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	0254 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	8532 97
DYA-Donostia	4646 22

### KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natuleuskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	8165 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

### KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemaileak)	687 60 50 06
DV (berriemaileak)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

### IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

### BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

## FARMAZIAK (MARTXOA)

1-8-15-23-29-30-31  
Arrieta (Azpeitia).  
943-811274

2-7-14-20-24-25  
Jacome (Azpeitia).  
943-080258

5-10-11-16-21-28  
Beristain (Azpeitia).  
943-811949

6-13-17-18-22-26-27  
Alberdi (Azpeitia).  
943-815974

## ORDUTEGIAK

**UDALETXEA** || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATORIOA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste egunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpokoak: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **LIBURUTEGIA** || Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 || Larunbata: 09:00-13:00 || Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. **GAZTELEKUA** || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

## ERABILGARRI



### ▲ BERRIZ HORNITUTA.

Sanagustinpeko, kiroldegiko, igerilekuko eta Jose Artetxeko autobus geltokietako liburutegi askeak liburu berriz hornitu ditu Udal Liburutegiko kideek, herritarrek irakurketaz goza dezaten.\*

3-4-9-12-19  
Aranburu (Azpeitia).  
943-811350

GAUEZ, URTE OSOAN  
Alberdi (Azpeitia).  
943-815974

## GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/  
autobusak

# TERESA MANGAS

Erakusleiho diseinatzailea

“Txukuna eta garbia izan behar du erakusleiho batek”

Amaren dendako erakusleihoak apaintzen hasi zenak, herriko hainbat saltokitan egin ditu diseinu lanak. 📌 **Ainitze Agirrezabala**

**B**ezeroa harrapatzeko amua da erakusleihoak, ezta?

Bai, aurreneko kontaktu bisuala da. Bezeroak erakusleihoak ikusita jasotzen dituen sentipenen arabera erabakiko du sartu edo ez.

**Erakusleiho erakargarri batek zer ezaugarri izan behar ditu?**

Txukuna eta garbia izan behar du, eta produktua nola aurkezten den garrantzitsua da oso, baita erabiliko ditugun materialak, koloreak eta konposizioak ere.

**Eta zer ez da egin behar inoiz?**

Dena erakutsi nahiarekin gehiegi bete.

**Erakusleihoak zenbatero aldatzea aholkatzen duzu?**

Urtean hirutan: udan, neguan eta Gabonetan. Herri bati bizia saltokiek ematen diete, eta zenbat eta erakusleiho politagoak egin, bizi eta ilusio gehiago izango da herrian.

**Nondik nora erabaki zenuen erakusleiho diseinatzailea izatea?**

Amaren umeentzako arropa dendako erakusleihoak apaintzea gustatzen zitzaidan neska kozkorretan. Gero, Turismo ikasketak egin nituen, baina betidanik gustatu izan zaizkit dekorazioa eta moda. 2006an master bat ikasi nuen Bartzelonan, eta bost bat

urtez herriko erakusleihoak diseinatzen aritu nintzen. Laugarrenoz ama izan nintzenez, seme-alaben zaintzara dedikatzea erabaki nuen.

**Interneta... zuen konpetentzia al da?**

Ilusioa eta gogoia izanez gero, edonork apain dezake erakusleiho bat, hainbat webgunetik ideiak hartu eta diru asko gastatu gabe eskulanak eginda. Krisiaren eraginez, dendariak beraiek hasi ziren diseinatzen.

**Herriko zer erakusleihok deitzen dizu arreta?**

Kiribilek oso diseinu politak izaten ditu eta Farmazabalek ere bai.

**Zer erakusleiho apainduko zenuke gustura?**

Zara bezalako denda handien erakusleihoak apaintzeaz arduratzen diren talderen batean lan egitea gustatuko litzaidake.

**Egindako lan guztien artean zein dituzu maiteenak?**

Azken aldian, amaren eta beste hainbat lagunen dendetako erakusleihoak diseinatzen nabil. Aneitz arropa dendako erakusleiho asko diseinatu ditut; oso politak, gainera. Amaren dendan ere lan asko eta oso politak egin izan ditut txikitatik.\*



1. Aneitz arropa dendako erakusleihoak askotan apaindu du. 2. Olatz Aguadoren Petopetue produktuen erakusleihoak izan da egin duen azken lana. 3. Amaren Arantxa arropa dendako erakusleihoan trebatu da Mangas.



# Jon zuen izena

**H**iru hilabete urtea estreinatu genuela, ezin Urteberri eguna ahaztu. Eguna etxekoen abaroan igarotzekotan ginen, igaro genuen, eta Urteberri eguneko *guasap* zorakeria zaparradaren erdian, gainerako guztiak ez bezalakoa, bat: "Mendizalea galdu da Gorbeian. Bihar goizean bila abiatuko gara". Gabon Zahar bezperan mutil gaztea galdua mendian, mila eta lauhun metro baino gorago den tontorraren magalean non edo non, hogeit mila hektarea baino gehiago den parkean.

Eta hantxe ehunka mendizale hurrengo egunean goizean goizago egunak argitu baino lehen euria goian-behean herriko frontoian, galdutako mendizalearen bila. Berrizkoa omen. Jon, izena. Kuadrillan abiatu omen zen, hogeit minutu gora egin, ondoezak jo eta bertan gelditu omen zen. Frontoian, hamarrekotako taldeak osatu dituzte. "Zuek, Manurgan gora jo... Zuek, Zaratetik abiatu... Zuek, Muruako harrobitik...". Eta halaxe gu ere, eta goruntz hartu baino lehen, beste bi mendizale, kopetan argia piztuta daramatela. "Mendizalearen bila al zoazte?", eta "Bai", "Zuekin joango naiz orduan!". Gizon sendoak dira, mendizale peto-petoak, sasoi betean doaz pausotan. "Nondik hator hi?", haiek. "Bertatik, ondoko Buruagatik". Eta, harrigarria, ez dute galdetu non den gure herria, jakinaren gainean dira, Buruaga non den inork ere ez dakienean. "Eta zuek?". "Mungiatik eta Lezamatik". "Urrutitik, horratik!", nik. "Erreskate taldekoak gara". "Erreskate taldekoak", neure buruari. "Ertzainak zarete?". "Bai".

## Dakienak daki

Ertzainak, Aitor eta Amunda. Mutil gaztea galdu zen egunean bertan, kuadrillak berri eman zuen momentutik bertatik, bila ekin ziotenak. Gaua bila eman zutenak, hurrengo egunean lankideei txanda eman, atsedean hartu, eta mutila galdu eta bi egunera, jai zuten arren, beren kontura mendira etorri zi-



|||||||miel a. elustondo|||

|||Eta ibili gara gora eta behera, sasi eta lahar artean xehe-xehe begira, euria gogotik

tzaizkigunak. "Bi leku jakin aztertu nahi ditugu. Badakigu mutilak bideo bat bidali zuela, eta irudiei begira badakigu, gutxi gorabehera, nondik bidali zituen ere. Lehengoan begiratu genituen bazter jakin bi arakatu nahi ditugu". Eta ibili gara gora eta behera, sasi eta lahar artean xehe-xehe begira, euria gogotik. "Bizirik aurkituko ote dugu?", nik. "Gaitza da. Lehenengo hogeita lau orduetan azaltzen ez bada, esperantza gutxi izaten da". Dakienak daki.

Eta haiek handik eta ni hemendik, sakabanatu gara Aitor, Amunda eta hirurok ere, galdu dut haien arrastoa, beheruntz egin dut eguerdia baino lehen, beste hainbat mendizalerekin bat egin eta gero. "Mutilaren arrastorik ez dago!".

Egunak joan, egunak etorri, berririk ez. Tartean, mutilaren amaren txioa. "Gaur 20 urte erditu zintudan. Gaur ez dakit ez non ez nola zauden eta ezin zaitut aurkitu. Gaur ezin zaitut besarkatu, ezin dot zure gorputza nire besoan artean batu. Hau mina. Maitte, maitte, maitte, maitte zaitut"

Urtarrilaren 28an aurkitu zuten Legutioko partean abenduaren 30ean Gorbeian galdu zena.

Jon zuen izena.✘





ETORKIZUNA  
ERAIKIZ

Gipuzkoaren etorkizuna  
guztion ardura da. Eraiki  
dezagun guztion artean.  
Aurea hartzea da  
horretarako modu  
hoberena.

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA  
ERAIKIZ  
El futuro de Gipuzkoa

[gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz](http://gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz)

Jarri hemen  
zure publizitatea

CUBAN A CAPPELLA GROOVES

# VOCAL SAMPLING

AZPEITIAN

**S**OREASU  
ANTZOKIA



[WWW.VOCAL-SAMPLING.COM](http://WWW.VOCAL-SAMPLING.COM)

[www.kulturaz.eus](http://www.kulturaz.eus)

Maiatzak 18 / ostirala / 22:00 / 10€-12€

sarrerak: [www.kulturaz.eus](http://www.kulturaz.eus) eta Sanagustin kulturgunean



Album  
*Así de Sampling*

ZIG  
ZAG  
WORLD

